



## FRAIDE ITZULTZAILE AZPEITIARRA

Anastasio Esnaolak 'Buhame-argiak' ezaguna itzuli berri du (22-25)

**Beloki**  
 Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62  
 AZKOITIA  
 Jose Arretxe, 21 Tel.: 943 151392  
 AZPEITIA



**EDUARDO BERASATEGUI**

Harategi eta Zerritegia  
 Euskal Herriko Haragirik Ozenal

San Inazio Kaleko 12an  
 Urrut. 943 81 14 98



*bertako skela*

HARZUBIA, 26 D  
 TEL. 81 60 25  
 ETXEKOA 15 00 03  
 AZPEITIA

**Harategia Odriozola**

Harategi  
 Espezializatua

Arana Kalea, 14  
 Urrut.: 943 81 1015



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4  
 TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO  
 HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA  
 TFNOA.: 943 811671

EUSKO LABEL



KALITATEA



# Manolo San Juan

Tailagilea

Orain urte batzuk tailagile lanak arrakasta zuen herrian. Urteak igaro ahala jendearen beharra somatzen da, baina San Juanek hor segitzen du. Atzera begiratu bat egin du Uztarriarekin.

## “Gaur egun ia ez dago inor tailagintzan”

Gorka Azkune,  
CAF-Elhuyar  
zientzia saria  
(12)

Bertsolari  
Gazteen I.  
Erniarraitz  
Txapelketa  
(18-19)



Otsailean  
eta martxoan  
Uztarriaren  
I. Kulturaldia  
(31-32-33)



Elkarrizketa.  
Urrategi  
Alberdi  
(42)

uztarria



Nerea Aranburu

**M**anolo San Juan tailagilea orain dela urte batzuk hasi zen lanbide honetan, 1944ko maiatzean hain zuzen ere. Orduan 16 urte besterik ez zituen.

● **Nolatan aukeratu zenuen tailagintza zure lanbide bezala?**

Une haietan beste aukerarik ez zegoelako. Nik gaztetan mekanikoa izan nahi nuen, baina garai hartan mekaniko bezala ez zen ezer askorik irabazten. Tailagile »



Manolo San Juanek egindako lan bat.

» moduan lana eginez gero, berriz, hiru pezetako soldata ematen ziguten. Ez zen diru asko, baina orduan diru kopuru horrekin arrautza bat erosteko aukera zegoen. Nire anaia bat ere tailagile bezala ibili zen, baina, egia esan, lanbide honetan ez nintzen bokazioz hasi, orduan diru pixka bat lortzeko bidea zelako baizik.

● **Tailagintzan hasi zinen garaian, zein lekutan egiten zenuen lan?**

Ni Agirreneko lantegian hasi nintzen. Lantegi honetan herriko jende askok egiten zuen lan. Beste asko, berriz, Damaso Azkuen ibiltzen ziren. Nik Agirrenean egin nituen lehendabiziko urte haiek.

● **Orduan herrian jende gehiago aritzen al zen lanbide honetan, tailagintzan alegia?**

Bai, asko. Orduan Azpeitian bertan ehundik gora tailagile izango ginen. Azpeitiko herrian hiru lantegi garrantzitsu zeuden; Agirre, Azkue y Compañía eta Damaso Azkue. Lantoki hauetan jende askok egiten zuen lan, tailagile, ebanista eta arotz bezala. Gaur egun hiru horietatik Azkue y Compañiak bakarrik jarraitzen du. Baina orduan oso lantegi sendoak eta indartsuak izan ziren aipaturiko beste bi tailerrak ere.

● **Zer-nolako garaiak izan ziren hasierako urteak, lanbide tailagintza hartu zenueneko urteak?**

Urte haiek oso urte gogorak izan ziren, baina ez lanbide honetan soilik, orokorrean baizik. Gerra amaitu berria zen eta ondorio handiak utzi zituen. Eta ondorio haiek denok jasan behar izan genituen eta ez tailagile lanbidean bakarrik.

● **Nola egiten zenuten lana?**

Ni ikastun bezala hasi nintzen lanbide honetan, gauza berriak ikasteko asmotan alegia. Eta gero denborarekin pixkanaka-pixkanaka mailaz igotzen joan ginen. Tartean soldadutza egin beharra izan nuen eta gero Ameriketara joatea suertatu zitzaidan, Uruguaira hain zuzen ere. Han tailagile lana oso ondo zegoen eta bi urte han igaro ondoren, berriro hona itzuli nintzen. Bertan igaro nuen denboran gauza berri asko ikasteko aukera izan nuen. Handik bueltan neuk bakarrik ekin nion tailagile lanari.

● **Zenbat urte daramatzazu tailagile bezala?**

Urte asko. 16 urterekin hasi nintzen

“ Tailagile moduan lan eginez gero, hiru pezetako soldata ematen ziguten. Kopuru horrekin, arrautza bat erosteko aukera zegoen garai hartan”

“ Orduan Azpeitian ehundik gora tailagile izango ginen; hiru lantegi garrantzitsu zeuden: Agirre, Azkue y Compañía eta Damaso Azkue”

“ Lanbide honek duen arazoa da guk egiten dugun lana ez dela askotan jendearengana iristen; ezkutu samarrean gelditzen dela pentsatzen dut”

mundu honetan eta orain 74 urte egin behar ditut; beraz, 57 urte igaro dira lanbide honi ekin nionetik.

● **Tailagintzan aldaketarik ikusten al duzue zure lehenengo urte haietatik gaur egun arte?**

Niretzat aldaketa nagusia da gaur egun ia inor ez dela gelditzen lanbide honetan, inor ez esatearren. Eta horrek pena pixka bat ere ematen dit. Nire kasuan, zorionez semeak hartu du nire lekua eta horrek gustua eta, aldi berean, poz handia ematen dit. Baina, orokorrean, ez dago jende asko lanbide honetan jarraitzeko asmo handirik duenik.

● **Jendeak tailaz egindako lanak lehen ala orain erosten ditu gehiago?**

Garai desberdinak dira. Orain, adibidez, une onean gaude, lan askorekin. Lanbide honek duen arazoa da guk egiten dugun lana ez dela jendearengana iristen, ezkutu samarrean gelditzen dela pentsatzen dut. Eskultura bat egiten badugu eta liburuetan agertzen bada, jendeak lan hori ikusteko aukera izango du. Orain dela urte batzuk, adibidez, eskailera bat egin genion pertsona bati. Lan hura edozein eskultura baino ederragoa zen, baina ez du inork ikusten, etxera eramane eta han gelditzen delako.

● **Nolako lanak egiten dituzue: enkarguak, saltzeakoak...?**

Denetariakoak. Lan asko apaingarri gisa jartzen dira; horrelakoak asko egiten ditugu. Eta enkarguzkoak ere egiten ditugu.



NEREA URANGA



## Belaunaldi berria

● Manolo San Juan tailagileak penaz eta tristuraz ikusten du lanbidearen etorkizuna. Hark dioenez, tailagintza jende berriaren premian omen dago. San Juanen kasua bestelakoa da, ordea. Mikel bere semeak (beheko argazkian) beti ezagutu du tailagintzaren mundua eta, horrela, orain urte batzuk, aitaren lanbideari jarraipena ematea erabaki zuen.



## Urte askotako lanaren saria

● Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkondearen ekimenez sortutako epaimahaiak, aurtengo *Gipuzkoako Artisau Tradizionalaren Diploma* Manolo San Juan tailagileari ematea erabaki du. Diploma urtarrilaren 25ean jaso zuen, Bazkondeak Donostian duen egoitzan, hain zuzen ere. Sari hauek 1991. urtean eman ziren lehenengo aldiz, eta harrezkero urterotero banatu dituzte. Diploma honek bi helburu nagusi ditu: alde batetik, artisauen lana saritzea, eta, bestetik, kultur tradizioan era honetako lanbideek duten aberastasuna azpimarratzea.

**OFIZIOA AFIZIO.** Manolo San Juan tailagileak oso gogoko izan du beti bere lanbidea. Betidanik gustatu izan zaio orain urte asko aukeratu zuen ofizioa. Bere kasuan, ofizioa afizio egin duela esan daiteke. Gaur egun, nahiz eta erretiraturik egon, oraindik ere lantegira joateari ez dio utzi. Bestalde, orain dela hamar urtez geroztik, klaseak ematen ditu Arte eta Diseinu eskolan, Azpeitian. Argazkian, lanean ikus daiteke bere tailerlean, Pablo VI.a auzoan. ●

amuko zubitik Jabier Altuna



## HELDUEN DANBORRADA DELA ETA

**P**asa den astean pil-pilean aritu ginen Sansebastian bezperako helduen danborradan zer gertatuko ote zen, Julian Barrenetxea abesbatzakoak bezperan ateratzea nahi zutela eta; norbaitek Irungo alardearen inguruan gertatutakoa txikia izango zela esan omen zuela zioten batzuek (ez naiz gehiegi fidatzen gure herriko ika-mikekin). Eta ostegun gauean entseazen ari ginen bitartean gauza hauez pentsatzen egon nintzen.

Emakume ugari ikusten nuen neure inguruan entseazen eta hori Irungoarekin konparatuz behingoz Azpeitian gauzak normal atera zirela pentsatu nuen; gauza logikoa, normala, bidezkoa lortzeko ez zuen iskanbilarik sortu. Ez dakit harro egoteko moduko kontua den baina beno, ez dakit, pozgarria da behintzat.

Ez ote da orain ezer gertatuko abesbatzakoekin?, pentsatu nuen neure baitan; ez ditzatela/ditzagula gauzak *por cojones* lortzeko tentazioa izan (berriro diot, gauza asko entzun

nituen, hau eta bestea egiteko prest zeudela) eta horrekin festa izorratu. Gai honetaz nire iritzia hau da: beste taldeekin egin den gauza bera egin behar zuela Udalak; X arrazoiengatik ezetz esan baldin bazaie batzuei, hauei ere bai.

Baina debate polita sor daiteke honen inguruan; taldeak Sansebastian bezperaz eta egunez txandatu behar diren edo ez (zergatik ez?); talde berriak sortzeko eskubiderik dagoen ala ez (bai); orain danborradan ateratzen diren taldeak bakarrik ote duten eskubide hori (ez)... Baina mesedez, *hechos consumados* ik ez; *por cojones* ez. Udaletxean herriaren ordezkariak hartzen dituzten erabakiak errespetatuz, eta nahiz eta edozeinek ez dakit zer eskubide duela pentsatu, festak izorratu gabe.

Horregatik azkenean ezer ez gertatu izanak asko poztu ninduen; oraingoan ere normalatasun giroan egin dira gauzak.

azketako ude Ainhoa Odriozola



## AZPEITIKO URAK, URTEGITIK ITURRIRA

**L**erro batzuk idatzi behar eta... ezin bururatu gai aproposik. Behin aukera eta ezin otu kontatzeko ezer interesgarriarik. Nola izaten diren gauzak... sudur puntan eduki eta ezin ikusi. Zer hobeago atal honetarako, urarekin lotutako gaia jorratzea baino, Azpeitian kontsumitzen dugun uraren inguruan aritzea adibidez. Bai, H2O... iturria ireki eta miraria bailitzaan ateratzen den likido soil eta xumea.

Unibertsitaterako lan bat egin beharrak, Azpeitiko uraren zikloko instalakuntzak bisitatze-ko parada eskaini dit; Nuarbeko urtegia, Oñatz bideko tratalekua eta Lasaoko araztegia. Interesgarria eta gomendagarria edonorentzat.

Aitortu gai honekiko nire ardura, iturria ireki eta ura ikusteaz bat amaitzen zela. Konprentzekoa, beraz, nire harridura, urak pasatu behar duen ibilbide konplikatuak ikusi nuenean. Azpeitiarrok etxeetan ur edangarria izan

dezagun, eta gure ur hondakinak ibaira txukun itzul daitezen, prozesu luzea eta zehatza behar du urak, eskatzen dituen egitura, langile, produktu, instalakuntza... ahaztu gabe.

Honekin lotuta datu esanguratsu bat: Azpeitian biztanleko eta eguneko 300 litroko bataz besteko kontsumoa dugu (Etxe eta industria kontsumoa barne). Ez zait erraza egiten horrelako kantitatea irudikatzea: bainuontzia urez beteta agian, edo 300 tetra-brik iladan txukun-txukun jarrita, supermerkatuetan bezala. Zenbaki potoloa nolana ere.

Gure paisaia berdeak ikusita, ezin esan ur eskasian gaudenik, baina, Nuarbeko urtegia gutxieneko historikoan omen dago. Ez dakit irakurleok zer pentsatuko duzuen, niri lan hau egin ondoren, baso bat ur edateko iturria irekitzea ez zait hain sinplea iruditzen, eta, 300 li-troko kupoa buruan, komuneko bomba botatzea zer esanik ez.

puntie ateaiez

Enekoitz Esnaola

## AZPEITIAZ HIZKERARI BURUZ

**E**z begirunerik, ez ardurarik, ez konpromisorik, ez kezkarik... euskararekiko ez dute ezer erakusten Uztarriaren web orri berriko eztabaida ataleko partaide gehienek. Azpeitiarrez idazten dute, baina nahi duten bezala idazten dute; gaizki. Ez diote garrantzirik ematen euskararen zuzentasunari eta egokitasunari, eta larria da horri garrantzirik ez ematea. Dena den, Uztarria bera al-dizkariko azken elkarrizketarekin ere halaxe dabil: azpeitiarrez ezin idatzita.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia abian jarri den honetan, badago zeregin garrantzitsu bat: azpeitiar hizkera arautzea. Euskararen normalizazioa lortu nahi bada, geure hizkarearen idatzizko erabilpena normaldu behar da, *anormalak* ematen baitugu.

bota bertsue

Leire Ostolaza

## KULTURALDIA

Gure herriko kultur taldeak gogor dabilta lanean bakoitza bere kasu zebilen kezka zuten barrenean ta orain gauzak aldatu dira ta onera aidanean kultur etxe bat noizpait izango dugun itxaropenean.

Poesi eta kontzertuez gain bertso saio ta hitzaldi erakusketa, mahai inguru... daude ekintza ugari txoko honetatik parte hartzeko deitzen diot jendeari laguntza eman behar baitzaio herriak sortzen dunari.



**DANBORRADA.** Eztabaida handia egon da azkeneko asteetan danborradako taldeen partaidetzaz, jende askok eman du bere iritzia, eta hori oso ona da, Azpeitian ez bai-kaude ohituta horretara.



**KALEKO KOMUNIK EZ.** Bat baino kexatzen da beti festatan: San Inazioetan izan ezik, kaleko komunik ez dute jartzen, eta azkeneko festa hauetan ere *txixe-usai* galanta egon da berriro kaleetan.



**ERAKUSKETAK NON?** Antxieta itxita dago, Zelaitxo bota egin dute, udaletxe azpian lane-tan dira, Sindikatua *okupatua* dago, Basazabal hutsik, San Agustin azpikoa auskalo... Non egin daiteke erakusketa bat?

## gutunak

## bada kejie!

### Azpeitiko Eroskin pezetak ez omen du baliorik

Euroa dela eta ez dela hamaika istorio eta ezusteko sortu berri zaizkigu urte berri honetan, hauetako bat kontatzera noa.

Urtarrilaren 11n, Azpeitiko Eroskira joan nintzen erosketak egitera. Erosi beharreko produktuak hartu eta kutzara gerturatu nintzenean ezustea!: 500 pezetako txanpon bat luzatu nion bularrean Garbiñe izena zeraman kutxazainari, baina honek ezetz, ez zidala pezetako txanponik onartuko, nahi barenen eurotan edo bestela pezetako diru paperarekin ordaintzeko, berak arazoak dituela eta txanponak bankuan aldatzeko.

Eroskikoek txanponak bankuan aldatzeko arazoak badituzte, guk ez al dugu arazo bera izango? Herriko dendari eta tabernariak jokabide hau hartuz gero, zer egingo dugu pezetako txanponekin? Eroskiko zuzendaritza eta kutxazainek zer egin ote dute beren txanponekin?



Jose de Artetxe kalea. / UZTARRIA

### Kalea autoek hartu dute

Alde Zaharrean oinez ibiltzea ezinezkoa zela esaten da askotan. Egia, goizetan kaleak irekita eta autoak nagusi dira. Baina, Alde Zaharrekoa hizpide bada ere herritarren artean, askotan herriko beste kale batzuekin ahazten gara. Azpeitian bada kale bat autoek hartu dutena: Jose de Artetxe. Espaloiak badaude, zebrabideak badaude, autoentzako aparkalekuak badaude eta, gainera, bi norabidetako kalea da, baina autoek hartu dute! Aparkalekuak gainezka, aparkatutako autoen ondoan eta kalean bi norabidetan autoak aparkatuta, autobusaren geltokian autobusak eta oinezkoak batetik bestera pasatzeko galduta.

Amaia U. (e-mailez)

Jarrera tamalgarri honen aurrean, Eroskiko zuzendaritzari mesedez buruarekin pentsatzeko eskatuko nioke eta ez euren karterarekin. Eta bide batez, jakin dezala pezetako txanponek oraindik ere lehen bezalakotzeko balioa dutela eta pezetak eskuartean darabilzkien jendea ere oraindik badela.

Gutun honekin azaldu nahi nuena gogoan hartuko duzue-lakoan, eta guztiok nahi bezala erosketak egiteko askatasuna izango dugulakoan, agur eta *euroberri*on.

E. Garate

### Harpidedun nintzen ni ere...

Bai, ni ere Uztarriako harpidedun nintzen, ez nuen sosik ordaintzen aldizkariagatik, baina ez nintzen *ohartzen*. Harik eta bazkide egiteko gutuna jaso nuen arte. Urtean 2.200 pezeta *kostatzen* nintzen. Bazkide naiz jada. Barkatu.

Joxe A. Arrieta

## akullue



Leire Ostolaza

ZABORTEGITIK  
ZELAITXOKO  
BUTAKA

**K**aixo! 48. butaka naiz. Garai batean hiru pezeta ordaintzen zituzten nire gainean esertzeagatik eta nire balioa hiru eurotik gora igo denean jubilatuta naute. Hau injustizia! Nire betiko etxea ere egun batek bestera harri eta egurrezko zabor piloa bihurtu dute eta azpian gelditu dira hamaika sekretu eta oroitzapen. Gogoan dut orain hogei urte nola etortzen ziren bikoteak oesteko pelikula ikustera, baldin eta Miarritzen edo Baionan ez bazegoen Emmanuelle edo horrelako pelikula bi-ziagorik. Ez zait ahaztu ez, *Ama Begira Zazu* taularatu zutenean, nola busti ninduen andra ipurtaundi batek, barreak eragindako paxalarriagatik. Gazteak berriz, horiek nituen gogokoen, nire tapiz ederra zerrikeriaz beterik uzten bazuten ere. Dударik gabe, hala ere, aspaldiko bikote gazte haiek ziren entretenigarrienak. Garai hartan ez zen nonbait erraza zirriak egiteko lekuren bat aurkitzea eta hirupezeta sakelean hartu eta gurera etortzen ziren oesteko pelikula ikusiaz, Emmanueleko igurtziak praktikan jartzera. Orain bota dute Zelaitxo eta ni zaborteagian nago, eta zuei ez zaizue axola. Orain igande arratsaldetan Warner-era joaten zarete koka kola edan eta palomita jaktera. On egin!

## inkestie

Herrian oinez edo autoz,  
zer modu uste duzu dela  
egokiena?

## zer diyo?

BESTE BEHIN ERREKAKO  
LANDAREDIA GARBITU DUTE

**B**erriro Amuko zubitik hasi eta Damasko koraino urte askotan sortutako landare eremu guztiak suntsitu dituzte (Zelai Luze parean ondo ikusi daiteke). Haltzak, sahatsak, makalak, ihiak... oinetik moztu ditu norbaitek, batzuk zuhaitz sendoak (enborraren diametroa 20 zentimetrokoa eta altuera zortzi metrokoa). Landare horien jabetza ez da moztu edo moztea agindu duenarena, bertakoa eta guztiona baik. Ez zait iruditzen uholdeak sortzeko arazo bat izango zirenik, erreka landarediak uholdeak oztopatzen baititu uraren abiadura jeitsiz.

Herritar batzuen ustez, guneha sortzen dira uda garaian ateratzen diren eltxoak, hainbat arazo sortzen dizkigutenak ziztadekin, baina uste hori ez da benetakoa. Eltxo mota hori ur gelditu edo putzuetakoa da (adibidez, baratze batego aska edo ontzi bateko ura, airearekin kontaktuan dagoena denbora luzean) eta ez erreka ur biziakoa. Errekan sortzen diren intsektuak beste batzuk dira: efemerak, trikoperoak, simulidoak... ez dute ziztadarik eragiten.

Landare haiek, erreka bizidunetan eragin izugarria dute urteko edozein garaitan. Udan, hostoek itzala sortzen dute eta urak gehiegi berotzea oztopatuz eta hala bertako oxigeno kopurua ez da jaisten. Zuhaitzik gabe, egun berotan urak oxigeno asko galtzen du arrain eta abarren bizia arriskuan jarritz, garai horietan ere erreka ur gutxi eramaten baitu. Udazkenean, berriz, hostoak erortzen direnean, bertako intsektu eta abarrentzat janari bihurtzen dira eta neguan zehar bizitzeko balio diete. Intsektuen

## Aitor Pui

(ikaslea)



**“Herri barruan oinez edo bizikletaz ibiltzea da egokiena.**

Bostehun metroko distantzia egiteko oinez ibili beharko litzateke, gero herritik kanpo, Donostira-edo joan behar baldin bada, beste garraio bideren bat hartu beharko da, baina herri barruan ibiltzeko ez dago autoa hartu beharrik. Autoek herrian traba besterik ez dute egiten. Ni alkattea banintz ez nieke utziko autoei herrian sartu ere egiten”.

bizilekuak ubideko harri azpian daude batez ere eta inguruko hosto eta egur zatietaz elikatzen dira, haiek errekatik kendu ezker bertako bizidunen elika kate osoan eragiten da eta gainera bere oinarrian. Landareri ez badago, intsektuentzat arazoak. Intsekturik gabe, arrain eta txorientzat ere arazoak... Beraz, katea ez hausteko landare gunek babesten hasi behar da, bestela erreka ura soilik daraman zerbait bihurtuko da, hila, eta erreka bizia nahi dugu.

Bertan hainbat bizidunentzako txokoak daude: zozoak, txantxangorriak, txepetak, ahateak, kaskabeltzak, martineteak, buztanikarak eta orogabe ugari besteak beste. Erreka zikin-erriak jasotzea ondo dago baina landaredia errespetatuz eta ez orain bezala (ez da lehen aldia).

**GALDERAK.** Erreka bere onera etortzen hasten den bakoitzean, hau gertatzen da eta hori ikusita zenbait galdera etortzen zaizkit: nork agintzen ditu mozketak? Legezkoak diren ala ez ba al daki? Ubideak berreskuratzeko Eusko Jaurlaritzaren proiektuak ez al dira kontutan edukitzen? Zertarako balio du Tokiko Agenda 21ek? Udako agintarien artean ba al dago koordinaziorik ingurumen arloan? Hurrengo mozketak noiz eta non da? Horrela hezitzen al gaitu Udalak ingurumenarekiko?...

Erreka guztiona da eta ez agintariena eta erreka garbitzeko ez dago dena moztu beharrik.

Jexux Zelaia (biologoa)



## Faustino Azpiazu

(jubilatua)

**“Orain autorik ez daukat eta oinez ibili behar.** 82 urte daukat eta karneta kenduta daukat, neuk ere nahiago orain karnetik ez izatea. Kanean auto gehiegi dago”.

## Olatz Agirre

(ikaslea)

**“Oinez ibiltzen naiz eta herrian ibiltzeko modu egokiena da.** Kanean autoz ibiltzeko, herri barruan sartzeko eta aparkatzeko gaizki dago”.

### UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTAK

**1. GALDERA:** Euroarekin gehiago edo gutxiago gastatuko duzu?

- Gutxiago: %10
- Gehiago: %42
- Berdin: %48

**2. GALDERA:** Sokamuturrean, karre-  
rak irekita edo itxita?

- Irekita: %76
- Itxita: %20
- Berdin dit: %4

## Joseba Egibar

(langilea)

**“Nik uste batzuetan oinez eta beste batzuetan autoz ibiltzea dela egokiena.** Ni, hala ere, beti autoz ibiltzen naiz. Baina autoz ibiltzeko aparkaleku oso gutxi dago eta municipalak edonon aparkatzen ere ez dute uzten askotan”.

## Maite Aranburu

(dendaria)

**“Herrian oinez ibiltzea da egokiena.** Autoarekin kalera irte-

nez gero ia atzera autoa etxe ondoan aparkatu beharra izaten dut. Izan ere, herrian eta kalean batez ere, autoa aparkatzeko leku askorik ez baita izaten eta aparkalekuak ere berez gutxi daude”.

## Arantxa Arruti

(dietista)

**“Herri barruan ibiltzeko modu egokiena oinez ibiltzea dela uste dut.** Azpeitia ez da hain herri handia ere herrian bertan autoz ibiltzeko batetik bestera. Metro gutxi batzuk egiteko ez dut uste autoa hartu beharrik izaten denik”.

## webeko eztabaida

**GAIA:** Uztarrria Kultur Koordinadoraren web orriko ‘eztabaidan’ atalean helduen danborradan talde berriak gehitzearen inguruan sesioan aritu dira kide batzuk. Hona gutun horietako sorta bat:

### ‘Deretxos adkiridos’

Nik galdera bat: azpeitiar batek zer dauka, danborradan irteteko aukera edo eskubidea? Nik uste dut ezberdinak direla biak. Aukera badu, irteteko aukera izango du edo ez, betiere tokiaren arabera. Eskubidea badu, tokia egin beharko zaio. Nik uste eskubidea daukala. Gaur egun danborradan irteten duten askok uste dute *deretxos adkiridos* dituztela, baina hauek amore eman beharko lukete; edo bestela amore emanarazi egin beharko zaie noizbait. Ezta?

Txotx

### Aukera denek dute

Nik uste dut Azpeitiko talde orok duela danborradan irtetzeko aukera, egia da talde askok aspalditik irtetzen dutela, baina arrazoi historikoak askotan eguneroko bizian ez dute ezertarako balio. Irtenbide moduan uste dut, irten nahi duten talde guztiei utzi behar zaiela irtetzen. Lekuarekin zer? Lekua egin egin beharko da, batzuek plazan eta plazan sartzan ez direnak kaleetan zehar. Danborrada festa bat da, festatan edozeinek har dezake parte, pixkanaka emakumeak ere gero eta gehiago irtetzen dute eta hori ona da; hemendik deialdi bat emakume guztiei danborradan lasai irtetzeko.

Azketa

### Proposamen bat

Nik badut proposamen bat Azpeitiko Udala-rentzat: nahi duenak irtetea, eta plazan sartzan ez diren taldeak Olazko Amaren plazan jotzea 00:00etako San Sebastianen martxa. Horretarako, Olazko Amaren plazan pantaila erraldoi bat jarriko nuke, eta urtero taldeak txandatu egingo nituzke. Alegia, beti jende berak ez jotzea plazan. Uste dut, horrela, talde gehiago aterako litezkeela, partehartzea handiagoa izango zen, danborradaren izaera ere handitu egingo zen, herritarrak ikusteko ere leku gehiago izango lukete... Zabal dezagun, behingoz, ikuspegia, eta partehartzeari ez jarri mugarik, mesedez.

Proposamena Udalari

### Txandaka

Azpeitiar bezala eta ikusita zein egun ospatzen dugun, gure proposamena da: talde denak kalean zehar ibiltzea eta gero 00:00etan erdiak parrokiari eta erdiak plazan bukatzea. Ez al da bada danborrada apaiz batzuek ekarritakoa? Eta parrokiari San Sebastian? Gero, plazan bezperan jo dutenak, denak, San Sebastian egunean *bajadan* jotzea. Eta hurrengo urtean aldeantiz.

Hiru emakume azpeitiar

“ Errekako landarediak uholdeak oztokatzen ditu uraren abiadura jaitsiz”

“ Landarediak erreko bizidunetan eragin izugarria dute urteko edozein garaitan”

“ Landare guñeak babesten hasi behar da, bestela erreka ura soilik daraman zerbait bihurtuko da”

## hausnartzen

**GAIA: 'Komunikabideak Azpeitian'. Zergatik erosten dugu prentsa espainola? Zergatik ez dugu irakurtzen euskarazko prentsa? Herri abertzalea izanik, zerk hutsegiten du?...**

**Oharra:** hurrengo aleetan ere eztabaida hau plazaratuko du Uztarriak; beraz, idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

## EROSOTASUNAREN ETA OHITURAREN INDARRA BARRUAN SARTUTAKOAN

**H**erri euskalduna da Azpeitia, ez da esan beharrik, baina badu Euskal Herri guztiak duen arazo bera Azpeitian bizi denak ere euskara komunikabideetan aukeratzerakoan. Hasteko, idatzian aukera zabala eta egokia du, urte askotako eskarmentu eta diru eta marketing mailan alde handiarekin hemengo eta euskarazko komunikabideekiko. Zer esanik ez ikus-entzunezkoetara sartzen bagara. Telebista kate sorta bikaina dugu eta hori gainera antena parabolika eta horrelakoetara sartu gabe. Euskarazko komunikabideak muga asko ditu besteen lehian. Diru gutxi dugu eta, beraz, bitartekoak ere gutxiago, jende gutxi erosten da eta kostuak handiak dira. Irratien munduan sarturik ere antzera gabiltza, dila aukeraz beteta dago, batzuk diru publikoz bizi direnak batez ere eta beste batzuk publizitatekin, baina Euskal Herriko ari direnak oso gutxi dira baso horretan. Publizitatea bera ere, beste atalak bezalatsu, landu beharra dago. Bere produktua saldu nahi duenak interesa ikusi behar du euskaraz eginez bere salmentek gora egingo dutela.

Hori horrela izanik ere, urte askotako ohiturak, ezkeretak, aurkako propagandak eta zapalketak ditugu denak elkarri eraginez. Azken gerra ondoko belaunaldian hainbesteko lanik ez da beharbada euskara gaitu eta trebatzeko egin izango. Aurrerapausoak eman dira eskolan, testu liburuetan, komunikabideetan, literaturan. Saiatu izan dira, edo gara, inoiz indarrez euskara inposatu nahirik, hori zelakoa bidea. Indarrak aurkako joerak indartzen ditu eta emaitza gutxi du, eta gutxiago gainera indar gutxi duenaren eskuetan. Frankismoak izan zuen indar guztiak ez baldin bazuen euskara desagertzetik lortu, pentsa lau buru berok zer lortuko duten alderantziz izanda ere. Ondo ari garela sinetsi eta betiko eran bizitzen jarraitzeak ere ez garamatza bide onera. Pixkanaka itotzen, lur eremuak galtzen, geuregan sinesmena urritzen... Izan ere, onez aurrera egiteko ere ez baititugu indar guztiak geure alde. Aurka daudenak asko dira eta indartsuak. Oraindik ez da agortu euskararen aurkako erasorako grina. Orain, gainera, badirudi berek eta beren aldekoek hainbat urtetan egin izan dutena euskaldungoari leporatzeko lotsa ere galdu dutela. Agintean jarri omen diren euskaldunek euskararen faboretan zertxobait egin duten orduko hori dira diskriminazio oihuak. Legeak ere ez daude hartzen diren erabakien alde, legeak beste nonbait erabakitzen dituzte eta. Dirua ere ez da agian beti zuzen erabili baina erabiltzen dena ere alferrikako gastua dela eta diskriminazio kontua sarri dago komunikabideetan eta ez bereziki euskararen alde nabarmentzen direnetan. Badira komu-

nikabide indartsuak euskararen aurkako estrategia antolatua dutenak. Euskararen aurka agertzen ez diren komunikabideak, alde daudelako agian, badira euskarari toki txiki ematen ez diotenak. Herri honetan bizi diren euskaldunen interesak aintzat hartu gabe. Baina egia ote da interesak aintzat ez dituztela hartzen? Hori ez baita inorentzat oztopo, denok dakigu gaztelania eta, beraz, hor ez dugu arazorik. Audientzietan ez du inolako zigorrik. Gizarteak ez dio komunikabideari inolako presiorik eta derri gorrik eragiten, ez du berak inolako eragozpenik hizkuntza erabilerara horregatik, eta, beraz, lasai arraio jarrai dezake. Euskara erabiltzen duenak berak ere ez du argi gehiagora jo behar duen.

Agian entzuleak edo irakurleak ez ditu horregatik irabaziko. Dituen langileak agian gaituago ditu gainera gaztelaniaz aritzeko eta euskaraz aritzean motelago ari dira, gutxiago ari direlako ere bai behar bada, beren lana ez dute horren ongi egiten euskaraz ari direnean. Eta komunikabide bat ari ote daiteke bere enpresaren kaltetan?

**EUSKARAREN DESEGITURAKETA.** Argi behar lukete, baina, euskara ez erabiltzeak esan beharrik ez eta herritarren proportzioz azpitik aritzean ez duela euskara indartzen. Bere lanak euskara desegituratzen laguntzen du. Baina euskararen desegituraketan partaide dira, erdal komunikabideak kontsumitu eta hauei euskara maila gora dezaten ezer egiten ez dutenak ere, entzule, ikusle, irakurle. Berdin esan daiteke liburu, disko edo elektronikako produktuekin ere eta gure eguneroko ohitura askorekin.

Dei berezia egin nahi nioke heziketa euskaraz hartzeko zortea izan duen gazte jendeari. Haiek nahiko normaltasunez hartu dutena normaltasunetik oso urruti baitago oraindik eta aurreko belaunaldiek eragindako kate-mailak ondorengo belaunaldien eragina eskatzen duela. Ez diezaiotela bizkar eman.

Badu ba bakoitzak zertan ahalegindu eta denon zeregina da hau, bakoitzak du bere lekua eta denon ahaleginak batuz eragingo diogu gurdinari. Gurdi zuloa sakona eta lohitsu da eta hankak lokatzatan sartu beharra dago aterako bada. Albotik begira edo onenean animuak emanez ezer gutxi eragingo zaio. Hasteko behintzat, dakigun neurrian euskara erabili gure eguneko zereginetan. Euskarazko produktuak kontsumitu, onak dira eta. Eza gutzen ez dena ez baita estimatzen.

“Euskararen alde egon arren, euskarari tokirik ematen ez dion prentsarik bada”

“Ezagutzen ez dena (euskarazko komunikabideak) ez da estimatzen”



## OHITURA ALA MASOKISMOA?

**A**zpeitian, espezializatu ez den edota prentsa orokorra-  
ren %75 inguru, *El Diario Vasco* egunkaria erosten da. Datua benetan ikaragarria eta ulergaitza da. Betidanik pentsa izan dut prentsa dela demokrazia fiktizio edo estalitako diktadura berri honetako kapitain general moduko bat. Bere boterea ia mugaezina da. Gaur egun munduan dagoen arma motarik bortitzenetakoa da (begira bestela munduko azken gerreetan eduki duen indarra), erabateko manipulazioaren bidez pertsonak pentsaeraz aldatu eta itsutzeko ahalmena duelako, eta, gainera, norbera ohartu gabe.

Baina eguneroko prentsari dagokionez, badugu bere indarra neurtzeko aukera bat. Oraindik kioskora joan eta nahi dugun egunkaria erosteko aukera dugu. Francoren garaian bi edo hiru egunkari zeuden Azpeitian (*La voz de España, Unidad...*), guztiak ideologikoki antzekoak. Orain, berriz aukera zabalagoa eduki arren —prentsa abertzale euskalduna barne— gure herrian lehenean jarraitzen da; hau da, Francoren garaiko egunkarien ondorengoa da nagusi. Zergatik?

Nire inguruan askotan solasgai izan dugu prentsa eta bere eragin politiko eta soziala, baita Azpeitian eguneroko prentsarekin gertatzen dena ere. *DV*

irakurtzen dutenek bota dizkidaten *arrazoiak* —kirola, eskelak, herriko karta, lan eta bestelako eskaintzak...— txikikeria iruditzen zaizkit egoera honek izan ditzakeen ondorioekin alderatuz. Kirol munduko egunkari ugari dago, eskelak, lan eskaintzak eta abar egunkari batean edo bestean azaltzea gure esku dago, ordainduak izaten baitira, eta herriko kartak beste egunkarietan ere badaude eta ugaltzen joango lirateke eskaera handia izanez gero.

**ZER OHITURA?** Bada, ordea, eztabaida guztietan entzun ahal izan dudana beste arrazoi edo aitzakia bat: ohitura. Zer ohitura?; gazteleraz irakurtzeko ohitura?; euskaldunon eta euskararen aur-

kako iritzi eta berriak irakurtzeko ohitura?; berri guztiak ikuspen espainiar batetik jakiteko ohitura?; gure hizkuntza eta kultur ekintzen berri ez jakiteko ohitura?...

Ez dut uste Azpeitia, eta azpeitiar gehienok, politikoki, sozialki eta kulturalki egunkari horren ideiekin bat egiten dugunik, eta, beraz, masokismo era honi aurre egiteko garaia dela deritzot. Bestela, globalizazio eta monopolizazio garai haue-  
tan, egunkari abertzale euskaldunak desagertzeko zorian egongo lirateke, eta guk geuk burutuko genuke Espainiako sasiepaile bat urteetan saiatzen ari den helburua.

“Egunkari bat erosteko ‘arrazoiak’ txikikeria dira ondorioekin alderatuz”

“Ez dut uste azpeitiar gehienok egunkari horren (DV) ideiekin bat egiten dugunik”

Xabier Aranbarri (injinerua)

# FISIKA AZTERTZEA AFIZIO DUENA



'Super soken' inguruko lana egin du Gorka Azkunek eta CAF-Elhuyar Zientzia Dibulgaziorako VIII. Sarietan bigarren saria jaso berri du

Gorka Azkune, CAF-Elhuyar Zientzia Dibulgazioko bigarren sariarekin. / NEREA URANGA

Nerea Uranga

**F**isika afizio duen gaztea da Gorka Azkune. 19 urte ditu eta informatika ikasten ari da. Fisika afizio, irakurtzea bezalaxe. Azken afizio horren bidez jaso du fisikari buruzko jakituria, dibulgazioko liburuak irakurritz alegia. Baina ez ditu fisikari buruzkoak soilik irakurtzen; "harrapatzen ditudan liburu guztiak leitzen ditut: eleberriak, filosofiakoak...".

Liburutatik ikasi du *Super soken* teoriaren inguruan; hala nola, *Eta honetan sokak agertu ziren* lana idatzi eta CAF-Elhuyar Zientzia Dibulgaziorako VIII. Sarietara aurkeztu zuen. "Iaz beste lan bat aurkeztu nuen, erlatibitate bereziari buruzkoa. Iaz epaimahaikoek aipamen berezia egin zioten, eta horrek aurrean ere bidaltzea animatu ninduen". Eta bigarren saria jaso du.

Teoriari buruz zerbait irakurrita zeukan, baina teoria horren inguruko liburuak udan aurkitu zituen Ameriketako Estatu Batuetan. "Batxilergoan notak ateratzeagatik sari bat jaso nuen, Bostonen hilabete pasatzeko aukera ematen zidan sariak, eta han topatu ditut teoria honi buruzko liburuak, oso ondo idatziak". Teoriaren asmoak, fisikan aske gelditzen diren soka mutur guztiak lotzea da, eta azkenean formula bat lortzea unibertso osoaren historia azalduko lukeena. "Fisika oso-osoa formula batean sintetizatzen du, eta asmoa fisikaren azken teoria izatea da". ●

“ Bostonen hilabete pasatzeko aukera izan nuen, eta han fisikari buruzko teoria batzuk leitu nituen”

Gorka Azkune (ikaslea eta fisika zalea)



**Lagunak**

Formación de conductores • Grúas prestakuntza


DUEN ORDUTEGIAGATIK  
DITUEN ZENTROENGATIK  
ESKAITZEN DEN ARRETA BEREZIAGATIK  
DUEN KALITATEAGATIK

**AZKOITIA**  
Ibai ondo, 16  
Tel.: 943 852034

**AZPEITIA**  
Pablo VI, 20 behea  
Tel.: 943 150816

# TXOTX EGIN EGUNKARIAREKIN!

Egin zaitez harpidedun eta gozatu sagardotegian bazkalduz\*



## AÑOTA

**TOLARE - SAGARDOTEGIA**

☎ 943 81 20 92 • AZPEITIA

## ITURRIETA

**TOLARE - SAGARDOTEGIA**

☎ 945 44 53 85 • ARAMAIO

## UXARTE

**TOLARE - SAGARDOTEGIA**

☎ 94 630 88 15 • ZORNOTZA

## Harpidetzaaren abantailak

- ✓ EGUNKARIAren **promozioetan abantailak.**
- ✓ Harpidedunaren txokoan **aisialdirako eskaintzak doan.**
- ✓ Goizeko **08:00ak baino lehen** jasoko duzu EGUNKARIA.

## Bete eta bidali zure datuak

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Tel.:..... Lanbidea:..... Jaioteguna:.....

K/k zbk.:..... N.A.:.....

EGUNKARIA / HARPIDETZA:

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 ANDOAIN

Tel.: 943 300 222 / 902 300 223

E-mail: harpidetza@egunkaria.com

**Egunkaria**



\* Otsailaren 4tik 17ra  
2 lagunentzako  
bazkaria edo afarria

**udal erabakiyek**

**Udaletxean igogailu berri bat jartzen ari direla-eta sarrera nagusia itxita**

Udaletxeko sarrera nagusia sei hilabetetan itxita izango da, bigarren igogailu bat jartzeko obrak hasi direla eta. Honegatik Udaleko zenbait zerbitzu Sindikatu Zaharreko lehen solairura pasatu dira; hala nola, harrera, zerga-bilketarako bulegoa, sarrera erregistroa eta katastroa. Gainontzeko zerbitzuetarako, udaletxeko aldameneko sarreratik sartu beharko da. Igogai-lua- ren lanak 420.708 eurotako aurrekontua du.



Udaleko sarrera nagusia itxita izango da lanengatik / NEREA URANGA

**Juan Gorriti**

**gurien..**

eskultorea

**«Ez nuen sekula pentsatuko erakusketa eliza batean egitea»**

Nerea Uranga / Gorritik, *Baserriko Argia* emakume baserritarraren lanaren erreko- nozimendua izango den eskulturaren proiektua gauzatzeko, finantziaketa modu bezala ehun eskultura egin ditu eta erakusgai egon dira Betharrametako elizan.

**• Baserriaren Argia proiektuaren sorreratik parte hartu al duzu ekimenean?**

Nigana orain dela bi urte etorri ziren EBELekoak. Eskultura handi bat egin nahi zuten emakume baserritarraren omenez. *Baserriaren Argia* aukeratu zuten. Orduan eman nien ideia herriz herri ibiltzeko erakusketarekin, eskultura handi bat asko kostatzen baita.

**• Zuretzako zer da baserria?**

Baserrian jaiotzen, Oderizen, Aralarko herri txiki batean. Orain Arribe-Atallon bizi naiz. Baserria galaria bat da, topaketak, espazioak, gauza asko ditu. Eskultura hauetan eskultura bakoitza historia bat da, gure herriko historia. Ofizioarekin idatzi dut nolakoa den Euskal Herriko baserria.

**• Azpeitian eliza da erakusketa lekua...**

Ez nuen sekula pentsatuko eliza batean egitea, baina eliza ere espazio bat da, herrikoa da eta, beno, argia hemen oso naturala da. Ezin bada egin beste lekuren batean, ba ondo iruditzen zait. Hau da baserri bat espazio batean, eliza batean sartzen.

**• Azpeitian erakusketarik egin al duzu?**

Ez, lehen aldia da. Bestela, Azpeitira- ko, Zuhatz tabernarako, mural eta al- tzari batzuk egin nituen. •

“ Eskultura hauetan eskultura bakoitza historia bat da, gure herriko historia ”



**Zelaitxo antzoki aretoa bota da etxeak egiteko**

Nerea Uranga / 2002. urtearen lehen asteetan, herrian zegoen antzoki bakarra bota da: Zelaitxo Antzoki Aretoa. Bere lekuan etxe ilada bat egingo du Zinealde eraikuntza promotore- ak. Azken urteetan antzoki eta zine areto izan da Zelaitxo, eta orain herrian gelditzen den zine areto bakarra Soreasu da.

Zelaitxo antzokiak 1955ko uztailaren 24an ireki zituen bere atea. Euskadiko Euskal Antzerki Topaketak, sortu zirenetik, bertan izan dira, 2000. urteko Topaketak arte. Horrez gain urte hauetan guztietan hainbat kontzertu, antzerki, zine emanaldi, jaialdi eta abar taula- ratu dira han. Zelaitxok, bere garaian, herrian desagertu zen beste zine areto bati hartu zion lekukoa: Luminor zine aretoari, hain zuzen. Lu- minor ere gaur egun Zelaitxo zegoen lekutik gertu zegoen. •



Zelaitxo botatzen, urtearen hasieran. / NEREA URANGA

## Gabonetako kanpainagatik diruz lagunduko dira taldeak eta elkarteak

Alkateak, Udaleko Turismo eta Merkataritza Sailetik egindako proposamena onartu du: Gabonetako kanpainagatik herriko zenbait talde eta elkarte diruz laguntzea. Diru laguntzak jasoko dituzten taldeak honakoak dira: UEME 441,64 euro (73.482 pezeta), Juan de Antxietia Musika Eskola 450,76 euro (75.000 pezeta), Gaztetxoan Musika Banda 450,76 euro (75.000 pezeta) eta Azpeitiko Argazki Elkarte 901,52 euro (150.000 pezeta).

## Santutxo auzoko horma bat egonkortzeko lanak esleitu dira

Azpeitiko Udaleko Alkatetzak, Santutxo auzunean dagoen horma bat egonkortzeko lanetarako obrak esleitzea ebaztu du. Obrak egiteko ebazpena Jose Maria Uria Mendizabali, Altuna y Uria S.A., ordezkatzan duenari eman zaio. Esleipenaren prezioa —%16 BEZ barne— 232.304,56 eurokoa da (38.652.228 pezeta). Santutxoko obra burutzeko jarri den epea, berriz, 45 eguneko izango da.

### pertsonajie



## Patxi Goenaga

Urtarrilaren 15eko Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak Patxi Goenaga euskaltzaina (Azpeitia, 1948) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuorde izendatu zuen, eta, hala, Goenagak Xabier Aizpurua ordezkatu du. Aurretik, Uztarrria Azpeitiko herri aldizkariak urtarri-

leko azken alean, laster albiste hori gerta zitekeela aurreratu zuen. Patxi Goenagaren aurreneko erronketako bat Azpeitian iazko abenduan abiatu zen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzea izango da. Sailburuorde berria, 1995ean izendatu zuten Euskaltzaindiko euskaltzain oso. Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle izan da orain arte, eta Gasteizen bizi da. ●

## zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



**ERANTZUTEKO EPEA:** Urtarrilak 23 (astelehena)

**HELBIDEA:** Uztarrria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

**AKATSA ADIERAZI** (idatziz edo boligrafoz):

**IZEN-ABIZENAK:**

**TELEFONO ZENBAKIA:**

**IRABAZLEARENTZAT SARIA:** Kimetz ileapaindegian (Azpeitian edo Eibarren) zerbitzu bat

### AURREKO ARGAZKIYE...



### ...ETA SOLUZIYUE



### IRABAZLIE: Idoia Karrera




Idoia Karrera izan da 25. garailea. Kimetz Ileapaindegian zerbitzu bat irabazi du, baita Uztarrriaren elastiko bat ere. Argazkian, Idoia bera —ezkerrean— eta Jabier Jauregi Kimetz Ileapaindegikoa ageri dira.

“Xanpun, ezagutu nuenetik bihotzeraino sartu zitzaidan, gizon ikaragarria baitzen”

**Joxe Agirre**  
(bertsolaria)

“Azpeitian, Euskara Biziberritzeko Plana modu ezegokian jarri da abian, euskalgintza baztertu da”

**Zigor Etxeburua**  
(Kontseiluko kidea)



Zigor Etxeburua.

“Lehen ere urtero etortzen nintzen sagardotegietara Diego Garciarekin”

**Martin Fiz**  
(atleta)

## Patxi Goenaga “ilusioz eta kezka” Hizkuntza Politikako sailburuorde izateagatik

**Nerea Uranga** / Urtarrilaren 15eko bileran Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak Patxi Goenaga azpeitiarra izendatu zuen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza sailburuorde. Beraz, Hizkuntza Politikako Sailburuorde bezala lehenengo erronketako bat Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzea izango du Goenagak. Plan hori martxan jarri den lehen herria, gainera, bere herria izan da, Azpeitia.

Patxi Goenagak izendatu eta ordu gutxitara *Euskaldunon Egunkaria*-ri eskainitako elkarriketan esandakoaren arabera, izendapena “ilusioz, baina baita kezka dezenterekin” hartu du, bere hitzetan, “hizkuntza politikan bereziki gertatzen baita batzuentzat gehiegi dena, beste zenbaitzuentzat gutxiegi

dela”. Nagusi izango dituen lan irizpideen inguruan ere hitz egin zuen *Egunkaria*-n, eta gaur egun erabiltzen diren bitartekoak ziur aski “nahikoak ez” izan arren, “ahalik eta etekin handiena ateratzea” da haren asmoa. ●

### izendapenari buruzko ikuspuntuak

#### Euskara Patronatoa

● **IZENDAPENA.** “Hartu duen ardura berrian, euskarari aspalditik dion maitasuna lanerako gogo betearekin uztartuko du”.

● **HERRIRA BEGIRA.** “Azpeitiko herriarekin euskararen normalizazioan bide berriak urratzen jardun beharko du orpoz orpo”.



#### Udaleko Eusko Alkartasuna

● **IZENDAPENA.** “Berri ona da, azpeitiarren onurako izango da eta Euskara Biziberritzeko Planean behar luke isla”.

● **HERRIRA BEGIRA.** “Benetako lana herrian dago. Udalak euskalgintzarekin elkarlanean jardun behar luke”.

#### Udaleko Batasuna

● **IZENDAPENA.** “Jaurlaritzak ea orain arte baino pauso sendoagoak ematen dituen hizkuntza politikan”.

● **HERRIRA BEGIRA.** “Erakunde publikoen eta euskalgintza-aren elkarlana jorratzen saiatuko dela espero dugu”.



**AIZPURU**  
AUTOAK

---

**PEUGEOT**

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59



**kitzika joyeria**

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea

Pastorkua Tabernaren ondoan  
Jose Artetxe, 13 - Tel. 943.15.76.13 - AZPEITIA



**AMAITA TABERNA**

*Pintxo bereziak eta giro jatorria*



Urritzkina, 943 150472 ♦ Erdi kale, 13



“Duela bospasei urtekin hona, poeta gazteen lanek eginagoak ematen dute”

Jose Luis Otamendi  
(poeta)

## motxien

### Epaitegi aurrea itxita bonba leherketa baten mehatxupean

Urtarrilaren 22an 10:30etik 11:00ak aldera arte Azpeitiko epaitegi aurrea Ertzaintzak itxi egin zuen. Gipuzkoako epaitegiaren batean aurrean leherketa izango zen abisua jaso ondoren hartu zuten epaitegi aurrea ixteko neurria. Ezer susmagarririk topatu ez eta ordu erdi pasatu ondoren ireki zuten.

### Itsasiren egutegia salgai dago

Itsasi Dantza Taldeak 25. urteurrenean argazkiz betetako egutegia atera du. 3,60 eurotan salgai dago, Urola Express, Garoa, Osinazpi, Pastorkua, Diart, Angel argazkiak, Lagun Onak M.B.n eta Itsasiren lokalean.

## urtarrileko irudiye



INAKI URANGA

**DANBORRAK ETA UPELAK JO ETA JO.** Urtarrileko doinuak eta hotsak Sansebastianetakoak izaten dira Azpeitian. Aurten ere hala izan dira, eta atera dute zarata, bai.



**UROLA IKASTOLA**  
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

### KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g  
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265  
Fax.: 943 85 28 67  
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

Perdilegi, 3  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70  
Fax.: 943 81 66 20  
E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net



IZARRAIZPE  
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

**AZPEITIKO IKASTOLA**  
**KARMELO ETXEGARAI**

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

**KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA**

Euskal Herria, 50  
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830  
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA  
(Gipuzkoa)

## EGITARUA

## MARTXOAK 1

## ● BERTSOLARI GAZTEEN I. ERNIARRAITZ SARIKETA.

● **Azkoitia**, Kultur Etxean. 22:00etan. Kanporaketako lehendabiziko saioa.

● **Bertsolariak**: Oskar Alberdi, Aritz Aranburu, Urko Egaña, Ruben Gorrotxategi, Gorka Iribar, Iñigo Izagurre, Iñigo Manzidor *Mantxi* eta Leire Ostolaza.

## MARTXOAK 8

## ● BERTSOLARI GAZTEEN I. ERNIARRAITZ SARIKETA.

● **Zestoa**, Kultur Etxean. 22:00etan. Kanporaketako bigarren saioa.

● **Bertsolariak**: Migeltxo Aiertza, Imanol Epelde, Aritz Etxeberria Ministro, Nahikari Gabilondo, Beñat Lizaso, Jokin Uranga, Felix Zubia eta Julen Zulaika.

## MARTXOAK 23

## ● BERTSOLARI GAZTEEN I. ERNIARRAITZ SARIKETA.

● **Azpeitia**, Soreasu Zine Aretoan. 18:00etan. Finala. Ondoren, afora Azkoitiko Iraurgi Elkartean, bertsolari, antolatuzaile eta bertsozaleekin.


## MARTXOAK 14

## ● MAHAINGURUA.

● **Errezil**. Joxe Lizasorekin eta Imanol Lazkanorekin. Gaia: garai bateko bertsolaritza eta bertso giroa.

# BERTSOLARIAK PROMOZIONATUZ

Martxoan zehar Bertsolari Gazteen I. Erniarraitz Sariketa izango da, eta hamasei bertsolari gaztek parte hartuko dute



bertsolari gazteak bultzatzea eta ezagutzera ematea da antolatzaileen esanetan. "Bertsolari gazteak animatzea izan da helburua, lan pixka bat egitera bultzatu nahi dira. Orain arte, Zarauzko eta Azpeitiko bertsolari gazteak herri ezberdinetako elkarteetan ibili dira bertsotan, eta inguruan bertsolari gazte mordoska bat dagoenez, hauek bultzatu nahi izan dira".

Martxoaren lehen egunean abiatuko da lehen kanporaketa saioa Azkoitian, bigarrena Zestoa izango da eta martxoaren 23an izango da finala Azpeitian. Zarautz, Zumaia, Itziar, Aizarnazabal, Zestoa, Azkoitia eta Azpeitiko hamasei bertsolari gaztek parte hartuko dute sariketan. Azpeititik bertatik sei bertsolari ariko dira lehian: Beñat Lizaso, Leire Ostolaza, Jokin Uranga, Ruben Gorrotxategi, Haritz Etxeberria *Ministro* eta Urko Egaña. Gai jartzaile aritzeko talde bat antolatuta dago, eta aurkezle, berriz, Ixabel Jaurregi eta Nagore Telleria ibiliko dira.

## Derea Uranga

**E**rniarraitz Bertsozale Elkartek laster ekingo dio urtero antolatu ohi dituen bertsolaritzarekin lotutako ekitaldiei, eta aurtengoan, iaz antolatu zuten bertso paper lehiaketaren orde, bat-bateko bertso sariketa berri bat antolatu du: Bertsolari Gazteen I. Erniarraitz Sariketa. Sariketaren helburua, Ernio eta Izarraitz inguruko herrietako

## GARAI BATEAN BERTSOTAN.

Sariketaz, gainera, bertsolaritzaz jarduteko parada ere jarri dute Erniarraitzeko bertsozaleek. Errezilen izango da mahainguru-tertulia, garai bateko bertsolaritza eta bertso giroa mintzagai hartuta.

## Ruben Gorrotxategi

(18 urte)



**“Eskolartekotik salto handi samarra izango da niretzako. Maila altua**

dago Erniarraitz sariketan. Hala ere, esperientzia polita izango dela uste dut, baina hori bai, sufritu egin beharko dugu”.

## Leire Ostolaza

(23 urte)



**“Animatuta nago gazteen Erniarraitz sariketarako. Sariketa bertso eskolan jarduteko eta motibazio bat izango da. Gainera, geuk antolatu izanak motibazio handiagoa ematen du. Bertsoan saiatuko gara”.**

## Urko Egaña

(22 urte)



**“Gogo pixka bat badut sariketarako, aspaldian Azpeitia inguruan kantatu gabe nago eta. Orain Gasteizen ari naiz ikasten, eta hango bertso eskolan ari naiz. Jende ona dago sariketan, bai Zarautzetik, baita Azpeitia aldetik ere”.**

## Beñat Lizaso

(19 urte)



**“Sariketa ederra izango da, baina guk zail samarra izango dugu. Maila**

handia dago, Jokinekin eta zarauztarrekin. Pixka bat saiatu eta hiztegiari ere errepaso bat eman beharko diogu hitz berriak ikasteko”.

## Haritz Etxeberria

(21 urte)



**“Sariketa hau etxekoa bezala denez, kantatzeraz atera-ko naiz. Gazteak bultzatzeko txapelketa da eta oihartzuna hartzen badu, zerbait izango da, Urolaldeko gazteak eta bertso giroa bultzatuko ditu”.**

## Jokin Uranga

(21 urte)



**“Erniarraitz sariketa hau, oso sariketa polita izango dela uste dut. Hamasei bertsolarik parte hartuko dugu, eta tartean indartsuak daude, zarauztarrek eta itziartarrak esaterako. Sariketa hau bukatu eta laster Osinalde sariketa edukiko dut”.**

Egin publizitatea

**uztarria**

943 15 03 58



ORKATZ KULTUR ELKARTEA

Erdi Kalea, 24

HITZEIN  
HITZEIN  
HITZEIN

Izaskun Lizarralde

LOGOPEDIA

630 133 286 - 943 157 417  
Urbitarate 3, auzunea 20730 AZPEITIA




Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

Ekain

ALBAITARI KLINIKA

Larrialdiak:  
943 15 16 40

## BULEGOETARAKO EKIPAMENDU OSOA



**IKASI**  
MOBELTEKNICA

MANPARAK  
ZABIAK  
LURRAK  
ALTZARIAK  
BULEGOETARAKO MATERIALA

Zure lanorduk arintzen ditugu



## SENTIMENDURIK GABEKO AZPEITIA



**E**gunotan Arthur falta da Azpeitian. Arthur Cabo Verden jaio zen duela 30 urte. Beltza da eta 1'90ko altuera dauka. Fideon egoten zen askotan, eta beharbada han ikusita ezagutuko duzue askok: euskal txapela jantzita egoten zen, eta begi ezkela zeukan, jaiotzatik.

Gau batean berarekin hizketan egon nintzen. Zazpi hilabete eman ditu Azpeitian, sukaldari lana egiten jabetxe batean. Oso pozik zegoen, oso pozik egon da. Euskaldunen artean ondo konpontzen zen, estimatzen gintuen. Baina keja bat zeukan, eta ez halamoduzkoa: ez zuen ligatzen. Zazpi hilabeteotan ez du batere ligatu; zazpi hilabete daramatza ezertxo ere gozatu gabe.

Badakit zer esango duzuen askok: "Nik gehiago zeramat, ez duk Azpeitia ezagutzen!", edo bestela "zer nahi duk ba, beltza izanda!", edo agian "harritzen nauk, beltzak duzuen kerten-luze fama horrekin".

Niri horregatik gustatzen zait hainbeste kanpoko jendearekin hitz egitea: geure buruari eta geure gizarteari buruzko gauza interesgarriak esaten dituztelako, gauza berdaderoak, inongo mozketarik gabe. Ez dut ulertzen kanpotarrei zaien errezeloa, ezinikusia, mesfidantza, kanpotar horiek, eurekin hitz egiten hasi aurretik, zerbait demostratu behar balute bezala; alegia, onak direla, jatorrak, leialak, ez lapur, likits edota sasikume doilorrak.

Arthur itsasuntzietan ibili da sukaldari urte askotan. 51 itsas-portu ezaugu ditu, Espainian, Portugalen, Hollandan, Irlandan eta abarretan, eta Azpeitian bezalako lehorterik ez omen du ikusi. Itsas-herri haietan guztietan errazagoa omen zen lagunak egitea, neskekin hitz egitea, lehenxeago edo geroago harremanak edukitzea. Hemen ezinezkoa, hemen desesperatu egin



da. Hau agoantatuko duenik ez omen dago, eta uste dut alde egin duela hemendik, aspaldian ez baitut ikusi. Eta esan behar da Arthur ez dela mutil batere itsusia edo gaizki egina, alderantziz. Altua, planta onekoa, hizlaria, gaztelania ederki dakiena eta euskara apur bat, ez dauka ezer txarrik, begi ezkel horixe kenduta.

Arthur gizarajoa. Nik arrazoia ematen diot. Ez dago eskubiderik. Badakit ligatzea gauza pertsonal bat dela, bakoitzaren erabakia dela noiz eta norekin egin, baina Azpeitian gertatzen den ligatu ezina ez da normala. Koadrila gehienak, oraindik ere, mutilenak dira soilik, edo neskenak soilik. Koadrila nahasiak oso gutxi dira. Eta koadrila monosex horien artean oso harreman gutxi egon ohi da. Taldeka sartzen gara tabernan, taldeka ateratzen gara, denok batera, geure frustrazioekin, larunbata joan eta larunbata etorri. Ez dago koadrila batetik besterako traspasorik. Sistema hori nola hautsi behar da, leporaino zurrut eginez, gero gauza inkoexoak esateko? Sinpatikoarena ere asko egin behar da ligatzeko, txistosoarena, katxondeoaren baitan errazago irensten baita ezezko posiblea. Noiz arte horrela?

Gizarajoak, edo gajoak, euren bizitza afektibo eta amorosoa larunbata iluntzetara mugatzen duten pertsona bikotegabeak! Gizarajoa Arthur, kariño eta samurtasun piska bat baizik nahi ez zuena, lujuria piska bat, gorputzari gustu piska bat ematea besterik ez, eta holakorik probatu gabe ihes egin behar izan duena! Ez daukagu bihotzik! Azpeitia herri ankerra da kanpokoekin, herri gogorra bertakoekin ere. Azpeitia laguntza gutxi, erruki gutxi, berotasun gutxi banatzen duen herria da. Badira salbuespenak, jendearen artean, elkarten artean. Baina Azpeitian enbidia ere ugaria da, hostasuna, errezeloa, kanpokoarekin motzak izaten espezialistak dira azpeitiarrak. Gure sentimenduak agertzen erakutsiko diguten ikastaroak antolatu behar dira lehenbailehen.

**HILEKO GALDERA.** Azpeitian zenbat bikote, inoiz mezatara joaten ez direnak, ezkontzen dira elizatik, gizartearen aurrean ondo gelditzeko bakarrik?

www.uztarria.com

# Uztarriaren webguneak oso harrera eta partehartze handia eduki du

## Uztarriaren datuak

**Argitaratzailea:** Uztarria Kultur Koordinadora  
**Egoitza:** Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre (Azpeitia).  
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58  
**Posta elektronikoa:** uztarria@topagunea.com

Web orria:

www.uztarria.com

**Posta kutxa:** 227, Azpeitia  
**Inprimategia:** Gertu  
**Tirada:** 1.800 ale  
**Lege gordailua:** SS-860/2000

## aldizkari honen laguntzaileak



**AZPEITIKO UDALA**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila**

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

Uztarria.com Susatutako albisteak

AGENDA | ALBISTEAK | EZTABAIDAK | INKESTAK | POSTA ZERRENDIA | TALDEAK | ALDIZKARIA | ZIBER-ARTXIBOA

AGENDA

Aste hontako ekita

>> Zine emanal "Nadie es perfecto" (Soreasu) 2002/01/21 - 20:00

>> Internet ikastaroa (Zap Txoko Gaztegunea) 2002/01/22 - 17:30

>> Sendabelarr ikastaroa (Gizarteakintza saila) 2002/01/22 - zehazgabe

>> Sukaldaritza lantegia (Zap Txoko Gaztegunea) 2002/01/23 - 18:00

>> Eskulanak: Collage (Zap Txoko Gaztegunea) 2002/01/24 -

**IRITZIA:** Jabier Beobideri bertsotan  
**Festa Batzorde buruari zuzendutako eskutitza**  
 Julian Barrenetxe abesbatza elkarteak - 2002/01/19 18:17  
 Julian Barrenetxe Abesbatzak Festa Batzorde buruari idatzitako eskutitza erantzunez eta gauzak argitzeko ondorengo bertsioa idatzi du.

**HERRIA:** Sanebastianak  
**Festa Batzorde buruaren erantzuna Julian Barrenetxe Abesbatzari**  
 El Diario Vasco-tik jasotakoa - 2002/01/19 13:57  
 Azken egunetan, Julian Barrenetxe Abesbatzari Sanebastian bezperako helduen danborradan ateratzeari ezetza esan zaiola eta eztabaida sortu da herrian. Hori dela eta, Jabier Beobidek gauzak argitzeko idatzitako gutunaren berri ematen da ondoren.

**BESTERIK:** Hainbat herritar ekonomikoki zigortuak  
**Herritarren aurkako isunak**  
 Isuna jaso duen gazte bat - 2002/01/19 12:34  
 HAIKA- ren aurkako operazioaren ostean izandako mobilizazioen ondoren hainbat herritarri 75.000 pezetako isun ekonomikoak iritsi zaizkie, mobilizazio hauetan pankarta eramateaz akusatuta.

**UDALA:** Igogailu berri bat jartzeko lanak udaltekian.


• Urtarrilaren lehen jarri zen martxan www.uztarria.com, eta jada hilabete bakarrean partaidetza izugarria izan du. Edonork albiste eta iritzia sartzeko aukera eskaintzen du modu erraz bate-

an. Baita eztabaidako gunean parte hartu eta inkestan bozkatzeko ere. Dagoeneko ehun lagun inguruk parte hartu du eztabaidan, eta inkestan, berriz, 300 bototik gora jaso dira.

## Web orrian edonork sar dezake albiste, iritzia...



• **ALBISTEAK.**  
 Albiste eta iritzia sar dezakezu, modu erraz batean. Saiatu zaitez!



• **EZTABAIDA.**  
 Goian egindako galderaren inguruan zure iritzia emateko modua.



• **INKESTA.**  
 Klik bakar batekin galderari dagokion erantzunetako bat aukera ezazu.

530 bazkide gara jada

# EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 3.500 pezeta - 21,04 euro / **Bestela harpidedun izan zaitezke, doan** (kontu korrontearena ez beste guztia bete)

**IZEN-ABIZENAK:** \_\_\_\_\_

**HELBIDEA:** \_\_\_\_\_

**HERRIA:** \_\_\_\_\_

**KODE POSTALA:** \_\_\_\_\_

**TELEFONOA(K):** \_\_\_\_\_

**POSTA ELEKTRONIKOA:** \_\_\_\_\_

**KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):** \_\_\_\_\_

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2. ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Zein da Anastasio Esnaola?  
Zarautzen 43 urte bizitzen  
daramatzen azpeitiarra,  
fraidea... eta itzultzailea. Bere  
bigarren liburua euskarara  
itzuli berri du, eta Uztarrria  
harekin izan da, komentuan.

# FRAIDE BATEN BESTE BOKAZIOA



**A**zpeitiaz daukan oroitzapenik garbienetako bat militar alemanak plazan ikusi zituenekoa da. Oso aspaldikoa, beraz; Espainiako Gerra Zibila bukatu eta handik gutxikoa. Pasatu dira urteak harrezkero. Baita Anastasio Esnaola bere herritik, Azpeititik, joan zenetik ere; hain zuzen, orain dela 56 urte erabaki zuen Arantzazura ikastera joatea eta fraide sartzea, eta, geroztik, modu finko baterako ez da itzuli herrira. Horregatik ez du, seguruenez, geroko hain oroitzapen garbirik, eta horregatik gailentzen zaio, seguruenez, militar alemanen oroitzapen hura oraindik; krudela ere bazelako irudi hura ikustea. “Gerra hasi aurretik jaio nintzen ni (1933); beraz, gerra bizitzea tokatu zituztadan, sei urte bete nituenean bukatu zelako guda. Gu artean, ordea, umeak ginen eta ez genuen nabaritzen giro hura. Baina, hala ere, oraindik akordatzen naiz behin plazan nola ikusi nituen militar alemanak; karameloak botatzen aritu ziren umeei, propaganda eginez. Ondo jantziak ziren, handiak, dotoreak”.

Herrian ez dira asko izango militar alemanak plazan ikusi zituztenak, eta, era berean, herrian ez dira asko izango Anastasio Esnaola ezagutzen dutenak, hura ez delako azkeneko mende erdian Azpeitian bizi. Orain Ramón María Valle Inclán idazle galiziarren *Buhamé-argiak* (*Luces de Bohemia*) euskarara itzuli du Anastasio Esnaolak, eta orduan jakin dute literatur zaleek edota komunikabideetan albistea irakur dutenek azpeitiarra dela hura. Fraidea dela ere jakin dute. Anastasio bera ez da harritzen hain ezezaguna izanaz. “Pentsa, neu ere ez naiz akordatzen neure eskolako gelakideez. Pare batekin edo, baina ez izen-abizenez. Hori bai, *Maisu Beltza*-z bai akordatzen naizena”.

Landetakoa da, Atxabaleta-behekoa baserrikoa —Urrestillara bidean dago—. Aita Antonio goiaztarra zuen, gaztea zela Azpeitira etorria bizitzera gurasoekin —orduan erosi zuten baserria—, eta ama Maria Garmendia azpeitiarra zuen. Zazpi anaia-arrebatetik Joxe Mariren eta Inazio zenaren atzetik zaharrena da Anastasio; gazteagoak ditu Joxe Miguel —hau ere fraidea—, Alberto, Maria Dolores eta Gaspar.

**ARANTZAZURA 12 URTEREKIN.** Ez da ohikoa Anastasioren adineko bat eskal itzulpegintzaren munduan sartuta egotea. “Normala! Guk txikitik eskolan hezkuntza espainola jaso genuelako. Eta, bestetik, oso jende gutxi joaten zen kanpora ikastera, jaunartze handia egin eta

hamabi urterako jendea lanean hasten zelako”. Anastasio bidegurutze batean topatu zen jaunartze handia egin zuenean. “Neure artean esan nuen: ‘Edo lanean hasi behar duk eta joan hadi Arantzazura ikastera’. Eta Arantzazura joatea erabaki nuen”.

Aldaketa ederra bizimoduan. “Ordu arte baserrian bizi izan nintzen, eta bizimodua ere hantxe egiten nuen, ondoko baserrietako gaztetxoekin: Larringoekin, Mardurakoekin, Malkortxoekin, Aritza Karloskoekin, Zabalekoekin... Hain justu, Zabalezen gure jostalekoa; Zabaleren azpian pilotalekoa zen, eta auzoko guztiok hara joaten ginen jolastera. Oñatzera ere bai tarteka. Urrestillara ere bai festatan. Herrira? Oso gutxi”.

Alemanena ez ezik, Anastasiok badu beste oroitzapen bat gogoan umetako garaiaz. “Santo Tomasak oso festa politak ziren. Gure gurasoak nekazariak ziren, eta horregatik gustatzen zitzaizkigun gehien jai hauek, itxura ederra edukitzen baitzuen plazak: baserritar ugari, animaliak salgai, jakiak... Pentsa zer-nolako ospea zuten, Nafarroatik baserritarrak oinez etortzen

#### hizkera

- **ZARAUZTARTUA.** Azpeitiarra bada ere, Azpeitiko hizkera galdu samar du Anastasio Esnaolak. Normala ere bada, 68 urtetik —apirilean 69— 56 Azpeititik kanpo daramatzalako. “Niretzat garrantzitsuena ez da bateko edo besteko hizkera, euskaraz egitea bai zik, eta nik egin egiten dut”, dio.

zirena tropelean, galderatan, lau gurpileko gurdi antzeko hartan, oilasko, ahata eta guzti. Urrestilla aldetik etortzen ziren, eta baserri ikusten nituen. Ikuskizun handia zen guretzat”.

Anastasiok bizimoduz aldatzea erabaki zuen, ordea, eta Arantzazura joan zen. “Neuri atera zituztadan hara joatea. Azpeitiko erretoreak askotan aipatzen zuten Arantzazu, bokazioaz hitz egiten zuen, eta niri orduan bokazioaren ukitu bat bezala eragin zidan horrek, eta gurasoei esan nien: ‘Arantzazura joango naiz’. Ondo hartu zuten nire erabakia”.

Baserriko egoerak izan omen zuen eragirik gurasoek hain ondo hartzeko semearen deliberazioa. “Etxean, anaia-arreboz gain, beste bi osaba ere bizi ziren, iseko bat ere bai...; jende askotxo, beraz, mahairako, eta baten batek etxea uzteak kalterik sortuko ez zuela eta...”. Atxabale- ▶▶

» ta-behekoan bertan gaudituzuen Arantzazun sartzeko azterketa, azterketa pasatu behar izaten zelako izan ere. Jose Antonio Garate fraide azkoitiarra propio joan zitzaion baserrira azterketa egitera, eta "erraz" gaudituzuen Anastasiok frogatzen. "Ez zen aparteko gauzarik jakin behar: idatzizko proba bat egiten zen, matematikako zerbait... Balekoa eman zidan".

Goiko-errotako autobus "famatuan" joan zen Arantzazura, gurasoek eta anaia batek lagunduta, hamabi urte beteak zituela. "Nirekin batera beste bi herrikide ere joan ziren hara ikastera, Zubizarreta anaia bi".

Arantzazun "beste mundu batekin" topatu zen. Mundu intelektuala batekin. Anastasio Esnaolarekin batera, beste berrehun bat ikasle zeuden, eta dozena bat fraide irakasle. Lau urte egin zituen han, ohi baino urte bat gehiago, espainolez "oso motza" zelako. Handik Forura (Durango) joan zen, bi urterako, eta hemezortzi urterekin nobiziadoda egitera Zarautzera. Bertan urtebete egin ondoren, Olitera (Nafarroa) joan zen, Filosofia ikastera, intelektualki gehiago jantzera. Eta gero atzera Arantzazura, Teologia ikastera, bokazioan gehiago sakontzera. Teologia ikasteten azkeneko urtean —laugarrenean— apaiz egin zen. Bilbon egin zituen "praktikak". Batera eta bestera ibili zen, beraz, urteetan. Behin apaiz zenean, Zarautz izan zuen berriro egoitza. "Urtebeterako etorri nintzen Frantziskotar komentura, hemengo ikastetxean klaseak emate-

## Liburu historiko bat prestatzen

● **Gaztetan Bilbon zela poesiara jo zuen Anastasio Esnaolak, eta Lore Joakoetan aurkeztu zuen lantxo bat, baita saria irabazi ere. Geroztik idatzi izan ditu artikuluak Arantzazu, Goiz-Argi, Arantzazuko Egutegia edota Jakin argitalpenetan, baina bere proiekturik handienari orain heldu dio, Uztarriak aurrera dezakeenez liburu historiko bat prestatzen ari delako. Ameriketako kokaturikoa izango da, eta Arantzazurekin zerikusi handia edukiko du. Pazientziarekin hartu du egitasmoa, biltzen dituen idatziak fidagarriak direla frogatzeko betiere.**

ra". Orain dela 43 urte izan zen hori, 26 urte zituela... eta oraindik bertan segitzen du. "Irakasle ona nintzen, nonbait. Mutikoei ematen nien klasea, denetik eman ere —aritmetika, geografia, historia, erlijioa...— baina, egia esan, klasea emateko ez zegoen asko jakin beharrik".



Jubilatu arte eman izan ditu klaseak Zarautzko Frantziskotarretan; orain dela ia bi urte, hain zuzen. Bere eskuetatik ezagun asko pasatu dela dio —izen bakar bat bota du, ordea: Jose Anjel Iribarrena—, eta ikasleen artean azpeitiarrak ere izan zituela. "Azpeititik eta Azkoititik autobus kozkor bat etortzen zen garai batean".

Euskara ere irakatsi izan du. "Frankismo

garaian euskara ez zegoen ematerik, baina orduz kanpo erakusten nuen nik, beste batzuekin batera, egunean ordubetetxo bat emanez jendeari, arrats partean betiere. Oso zaila zen guretzat, ez zegoe-lako materialak erakusteko. Geuk prestatu behar izaten genituen gaiak".

**VALLE INCLANEN ERDARA.** Orain euskarara itzuli ditu bi liburu. Arestian aipatu bezala, *Buhamen-argiak* (iaz) eta, aurretik, 2000an, Mariano Errastiren *Eguzkilore*. Baina ez ditu iltzulpegiatzako bere lehen lanak. Arantzazun egon izan zenean itzuli izan zuen "zerbait", eta gero Zarautzen frankismo garaian ere bai, "jendea etortzen zelako inprimikiak-eta itzultzeko eskatuz".

*Buhamen-argiak* liburua itzultzeko orduan, euskarak ez dizkio lanak eman, espainolak baizik. "Izan ere, Valle Inclanek bere estilo propioa zuen, eta kaleko hitzak erabiltzen zituen asko. Hura galiziarra zen eta hango hizkuntzatik erdaratutako hitz ugari du liburuan eta ulertu ezinda geratzen zara, gaur egungo hiztegieta azaltzen ez direlako. Itzultzen hasi aurretik hiru aldiz leitu behar izan nuen liburua". Valle Inclanen garaian —1920an argitaratu zuen liburua—, antzerkiaren aldaketa ari zen gertatzen, eta Valle Inclanek berak beste antzerki mota bat egin nahi izan zuen, eguneroko bizitzan oinarritutakoa, horixe eskatzen zuelako jendeak. "Herriarentzat baldin bazen, herriak hitz egin bezala idatzi nahi zuen Valle Inclanek, eta kalera





“ Jaunartze handia eginda, Arantzura joatea nahi izan nuen”

“ Zarauzko komentura urtebeterako etorri nintzen 1959an baina...”

“ Jubilatua nago, eta gustuko zerbaiti heldu diot: itzulpengintzari”

Anastasio Esnaola

atera zen, eta kaletarren esamoldeak eta hitzak jaso zituen eta idatzi”. Orduko mintzaira hobeto ulertzeko, Frantziskotar Ikastetxeko irakasle baten “laguntza handia” jaso du Anastasio Esnaolak: Joxerra Barrenarena. “Espainieran oso aditua da, Portugaleko Unibertsitatean irakasle egona da, Espainiako literatura asko ezagutzen du, eta askotan joaten nitzaien galdezka. Gauza asko argitu dizkit”.

Baina nolatan hasi da jubilatukoan liburuak itzultzen? Bi arrazoi ditu. “Batetik, gustatu egiten zait. Eta, bestetik, jubilatukoan zerbaiti heldu beharra dago, nahiz eta adin honetan liburuak itzultzen hastea ez den oso ohikoa”. Ibaizabal argitaletxeak argitaratu dio *Buhame-argiak*, Literatura Unibertsala atalean, baina ez azpeitiar fraidearen lehen ahaleaginean, lehenago ere bidalia zuelako kapitulu bat itzulita proba gisa, baina ez zioten jarraitzeko eskaririk egin; bigarrenago saioan bai.

Urte erdia pasatu zuen *Buhame-argiak* itzultzen. Eta “gustura” aritu zen, ia egunero eginez lan. Goizean goiz jaikitzen da, seiatarako, eta mezaren eta gosariaren ondoren malekoian paseo bat egin —“lehen gehiago”— eta gero hasi ohi da liburuekin bueltaka eta itzultzen. Inguru aproposa du horretarako, oso toki lasaia delako Frantziskotarren komentu handi zaharra (XVII. mendekoa da). Anastasio 1959an bertara iritsi zenean 40 bat fraide zeuden; orain 23. Anastasio bertara iritsi zenean ez zuen pentsatuko handik 40 urte pasara liburuak itzultzen hasiko zenik. ●



# argitarre oparidenda merkealdia

erdi kalea, 1 tel. 943 81 13 25 20730 azpeitia

# Txomin Larrañaga

Sokamutila

## “Sokamutil izateari utziko diot, baina ez sokamuturrari”

25 urte egingo ditu aurtengo Inauterietan sokamutil bezala. Eta aurten bertan utziko dio sokamutil izateari

**F**esta eta zezenzalea da Txomin Larrañaga. Eta zezenzaletasunagatik hasi zen orain 25 urteko Inauterietan sokamutil lanetan.

Jarduera hori utzi bezperatan izan gara harekin.

### ● 25 urte hauetan zertan aldatu da sokamutilaren lana?

Inor ez da destakatu bat bestearengatik. Gauzak aldatu badira egoera aldatu delako izan da. Jaiegun gehiago dira, eta, beraz, lana aldatu egin da, baina jende gehiago gaude, material aldetik aukera handiagoa dago. Bstetik, kaleetan aldaketa handiak izan dira, lehen Azpeitian ez zelako karrerarik ixten; lehen herrian bi edo hiru izaten ziren itxita eta beste guztiak irekita izaten ziren.

### ● Zeu nolatan hasi zinen sokamutil?

Azpeitian oso zaleak gara sokamuturrean, eta neu prest azaldu nintzen.

### ● Zaletasuna orain bera al da?

Azpeitian beti izan gara zaleak eta denak harritu egiten dira, batik bat ganadu zaleak, hainbeste orduan ez delako sokamuturra beste inon izaten eta jendearen partehartzea izugarria delako. Gainera, festarik merkeena da. Edozein musika taldek gehiago kobratzen du. Ikusi besterik ez dago zenbat jende ibiltzen den zezenean hainbeste ordutan.

### ● Aurtengoa omen duzu azkeneko urtea sokamutil bezala...

Bai, aurtengoa izango dut azkena; aurtengoa egin eta uzteko asmoa daukat. Dagoeneko 25 urte dira eta jende berria ere badator. Baina sokamuturrean segitzeko asmoa dut. Semeak berak ere zaletasuna badakarki. Hori etorri egiten da; gure etxean guztiok izan dugu zezenetarako zaletasuna.


### ● Sokamuturrak jaiak herriko-ko-ko-ko egiten al ditu?

Sokamuturra da herriko jendearen partehartze handiena duen ekitaldia.

### ● Anekdotaren bat..

Lehen, soka jasotzeko, mataderoko karrua erabiltzen genuen, eta sokamuturra bukatzen zenean zezen-plazara eramaten genuen materiala. Karroarekin kaletik oihuka pasatzen ginen, gurpilek izugarrizko zarata ateratzen zuen, uztai burdinezkoa baitzuten. Tabernak gainezka egoten ziren eta jendea sustoarekin tabernara sartzen zen. Behin gogoratzen naiz, hartu zuen sustoarekin nola gizon bat muturrezka erori zen. Hori grabatuta daukat buruan.

Iñerea Uranga



## Festa zale amorratua

● Txomin Larrañaga hainbat jai antolatze-ko lana egindakoa da, eta, batik bat, Inauterietan. Adibidez, kaldereroak Inauterietan uztartzeko lana egin izan du, Sarriegik konposatutako kantuak herriratu eta haurrekin eta helduekin kaleratuz, “Sarriegik kanta batzuk konposatuak zituen, oso kanta politak, justu kaldererorarako”. Mozorroto eta koadrilarekin bate-

ra hainbat alditan desfilean ateratakoa ere bada. Baina Txominen ustez, jendeak orain urte batzuetatik hona jaietan parte hartzeari utzi egin dio. “Festaren inguruan jendearen mentalitatea aldatu egin da. Lehen jaietan ezer askorik ez zenean egoten, jendea prestatzen zen gauzak antolatzeko eta lanerako. Orain dena dago, eta jendea ez dago prest lanerako.” ●



UROLA ERDIKO MERKATARIEN ELKARTEA

# Azpeitiko dendariak, zuen ondoan, zuen zerbitzura

## **CICLOS BENI**

Loiolabide Tel. 150629

## **LARRAÑAGA KIROLAK**

Arana, 3 Tel. 811365

## **ODRIOZOLA HARATEGIA**

Arana, 14 Tel. 811015

## **EGOKI JANARIAK**

Barrenetxe, 8 Tel.815490

## **ZABALA HARATEGIA**

Arrabal, 8 Tel.811671

## **NEREA MERTZERIA**

Arrabala Tel.812862

## **ZOKOA ANDREEN JANTZIA**

Arrabala Tel.815056

## **ARKUPE KIOSKOA**

En. Nagusia Tel.815207

## **AGIRRE OPARIDENDA**

Erdi Kale, 1 Tel.811325

## **FURUNDARENA OINETAKOAK**

Erdi Kale, 9 Tel.811143

## **URIA ALFONBRAK**

Erdi Kale, 29 Tel.812337

## **AMENABAR JANARIAK**

Etxe-alai, 3 Tel.150065

## **SAN SEBASTIAN HARATEGIA**

Foru Ibilbidea, 4 Tel.811594

## **EGAÑA GOZOTEGIA**

Goiko Kale, 10 Tel.811885

## **JAKA JANARIAK**

Harzubia, 19 Tel.816549

## **ANDONI FRUITUDENDA**

Harzubia, 29 Tel.812502

## **AITZAKI KIROLAK**

J.A. Agirre, 4 Tel.150738

## **OTOLA KINKILADENDA**

J.A. Agirre, 7 Tel.811366

## **SANTI LAZKANO KIROLAK**

J. Artetxe, 1 Tel.811650

## **BALENCIAGA**

J. Artetxe, 10 Tel.813400

## **ERROTAUNDI OKINDEGIA**

Euskal Herria

## **MARTZALA OINETAKOAK**

Olazko Amaren Plaza

## **BELOKI HARATEGIA**

J. Artetxe, 21 Tel.151392

## **ARROSPIDE OINETAKOAK**

Loiolabide, 1 Tel. 811914

## **EMAITZ LURRINDENDA**

J.A. Artetxe, 11 Tel.813345

## **ORDULARI BITXIDENDA**

J.A. Artetxe, 10 Tel.815244

## **ARANTXA HAUR JANTZIAK**

J.A. Artetxe, 8 Tel.812429

## **BABESA GAZTE MODA**

Urbitarte, 9 Tel.151369

## **IRIS MERTZERIA**

La Salbe, 11 Tel.813298

## **IRATXO JOSTAILUAK**

La Salbe, 24 Tel.150530

## **ZALDIKO LURRINDENDA**

La Salbe, 15 Tel.151275

## **ICIAR ILEAPAINDEGIA**

Loiolabide, 19 Tel.810217

## **ARADI KIROLAK**

Olazko Amaren Pl., 3 Tel.150290

## **ZURI BELTZ JANTZIAK**

Olazko Amaren Pl., 10 Tel.816656

## **MATXIN ZESTOAK**

Pablo VI, 39 Tel.810116

## **UKABI ORDENAGAILUA**

La Salbe, 39 Tel.150101

## **LUR LORA DENDA**

Santiago, 11 Tel.150085

## **URKE ARGAZKIAK**

Urbitarte, 4 Tel.151287

## **UROLA BIDAI AGENTZIA**

Arrabal Tel.150804

## **M. GRAL . SEGUROS**

Pablo VI, 5 Tel.151649

## **COOP. SUKALDEAK**

Arana, 7 Tel.812309

## **URBISTONDO MARGOAK**

La Salbe, 35 Tel.815781

## **SOINU ELEKTROGAILUAK**

Okerra, 11 Zestoa Tel.147938

## **DUNPI JOSTAILUAK**

Erdi kalea, 3 Tel.151890

Foru ibilbidea, 3 Tel.813969

**datue**

**982** afiliatu zituen ELAk Azpeitian iazko urtearen amaierarako. Hauetatik, 216 emakumeak dira eta 95, berriz, 30 urtetik beherako gazteak. Afiliazioak orokorrean %5,48ko igoera izan zuen iaz. Emakumeak Azpeitiko ELAn %5,32 gehiago ziren eta gazteak, berriz, %14,4 gehiago. Euskal Herrian ELAk 96.000 afiliatu inguru ditu.

**esaldiye**

“Gehiago edo hobeak izan genitzake, baina mugatua da kultur produktuak kontsumitzeko dugun ahalmena”

Juan Ignacio Perez Iglesias  
(EHUko katedraduna)

**esaerie**

“Garaipena, neke askoren ondorena”

**liburutik ttak**

“Ez naiz arinki mintzo. Gu gera —Herriak, eta ez estaduak— Europaren arima eta gorputz. Europak zibilizatorik baldin ba du, zibilizazio horren iturriak gu gera. Europa gu gera. Europa gurea da. Europa guk egin behar dugu. Ez dugu estaduentzat, monedentzat, monopolioentzat, armadentzat, polizientzat, diktadoreentzat montatutako Europa hilunik nahi...”

‘Telesforo Monzon. Hitzeko gizona’. Anai Artea argialetxea. Monzonen hitzaldia, 1973an, Flandrian.

**kontue da...** Imanol Elias Odriozola (idazlea)



**INAUTERIETAN,  
ZEZENAK BEHAR**

**1820** urtea eta Inauteriak hurbilean. Otsailaren 8an egitako batzarrean erabaki zuen herriko Udalak, Inauterietako hiru egunetako bakoitzean zekorketa bat egitea enparantzan, bera itxirik eta ahalik eta diru gutxien gastatuz.

Baina, garaian ere, salatariak nonbait... Erabakiaren albistea berehala iritsiko zitzaion Azkoitian aurkitzen zen Gipuzkoako Korrejidoreari eta bai azkar idatzitako agindu bat bidali ere azpeitiar agintari. Ezinezkoa zuten herriaren diru bat erabili, plaza itxi eta zekorketa bat egiteko Inauterietan, aurreko lanak zituenez; egoera larrian zegoen Udalaren ekonomia alderdiak erantzuteko. Agintariek beraien ordaindu beharko zuten bestela egiten zen gastua eta bakoitzari gainera isuna ezarriko zitzaion, baldin behintzat berriro batzarra

egin eta hartutako erabakia bertan behera uzten ez bazuten.

Korrejidorearen agindua hartu eta berehala bildu ziren azpeitiar agintariek gaiari buruz hitz egiteko otsailaren 9an, baina ez idatzita zegoena betetzeko asmoz, iruditzen zitzaenez inolako ahalmenik ez zuela Korrejidoreak, Gi-puzkoako herrietan dirua nola inbertitu agintzeko. Aurrez hartutako erabakia ontzat hartu eta gertatzen zenaren berri Diputazioari jakinaraztea iruditu zitzaion, Korrejidorearen gutuna bidaliz; aurrera jarraituko zuten zekorketarako prestaketak egiten.

Otsailaren 12an bildu ziren berriro azpeitiar agintariak, Diputazioaren gutuna jaso ondoren, beraien erabakia egokitzen hartzen zuena: Inauterietako hiru egunetan zekorketak egiteko, plaza itxirik nahi bazuten, herriak zuen

**garai bateko Azpeitiye** ...Inazio Martinez ‘Kartton’-ek kontatua

**Alde zaharreko dendak**

Industrialderik ez zen garaian, ofizio denda asko biltzen ziren herriko alde zaharrean eta honek bizia ematen zion herriari


**Nerea Aranburu**

**M**artinez inprimategia 1856. urtetik dago Azpeitian. Inazio Martinez *Kartton*-en aitona, enkuadernadorea ofizioz, kanpotik etorri zen Azpeitira eta ondorengo bost belaunaldik jarraitu diote ofizioari. “Nire aita ere inprimatzailea izan zen, baina oso gazterik hil zen, orduan mutikoa nintzen eta arrebekin jarraitu nion aitona ofizioari”, dio Inazio *Kartton*-ek.

Martinez inprimategia betidanik Erdi Kalean egon da. Inazio bertan lanean aritu zenean Alde Zaharrean era guztietako denda eta lantegiak zeuden. “Orduan ez zegoen industrialderik eta ofiziozko dendak biltzen ziren alde zaharrean, eta horrek bizi handia ematen zion herriaren erdiguneari”, kontatzen du.

Plazatik kalean behera abiatuz zeuden denda eta lantegi gehientsuenak gogoan ditu Inaziok: “Aldagoitinekoa, Alondegia (ardoak), Kanpaxa, Tomasule janari denda, Patxihaundinekoa,

Agirrenekoa, Guibert, Luzio Alberdi oihalak, Txanboli txerriki eta janari denda, Mikaelan arrandegia, Pepelis, Alkatte barberoa, Txantxiko —honek atean kartela zuen jarrira *Aqui se rejuvenece*, zelebrea zen— eta Katxo barberoak —honek ere bazituen irteera politak, kategori handiko gizonen bat joaten zenean barberira, ateko gortina jartzen zion lepoan, dotore asko—, Irintzaile, loteria saltzen zuten bi ahizpak, Galtxaneko eta Trastorno okindegia, El buen Gusto gozodenda, La Cepa taberna, Agiñaneko torneroa, Amalaunekoa, Korrale, Uzindarren eta Simoneneko sagardotegiak, Zufiria ardoak —garai hartan delegatu bat pasatu zen, ardo saltzaileen dendetatik eta aztertu ondoren Zufiriarena onena izendatu zuen eta harrezkero dendari La Confianza izena jarri zion—, Sindikatokoa, Cooperativa San Ignacio, Marixistera xestoak eta ikatza saltzen zituen, Paragueseneko eta Arrueneko gozodendak, Agerre, Marttue eta Joxemai barberoak, Pana-



A zer aldaketak! / IMANOL ELIASEN ARTXIBATEGIKOIA

● **ZEZENAK.** Herarritzaga eta Arazkoa zezenak, erosi egingo zituen herriak, beraien lana bete ondoren hil eta haragia saltzeko asmoan

Arautegiak agindu bezala urte bakoitzeko 2.800 erreal zituen elizkizunak eta plazan egiten ziren jaialdietarako.

Denbora galdu gabe bidaliko zioten erantzuna Korrejidoreari, baimen osoa zutela adieraziz hartutako erabakia aurrera eramateko.

## xapo euskerie

Aitor Arruti

Arantzazu Azpillaga

(itzultzaileak)

### EUSKALKIAK IDATZIZ (I)

**H**erri aldizkariak sortzean, hizkerari buruzko eztabaidak izaten dira gehienetan. Euskará batua bakarrik al da idazteko modukoa? Euskalkiak ere erabili al ditzakegu? Azpieuskalkiek ba ote dute lekurik esparru idatzian?

Garai batean, euskarak arauak behar zituen, batu beharra zuen, galtzeko arriskuan zegoelako. Horretarako bidea 1968an Arantzazun jarri zuten abian. Gaur egun, euskara batuta eta erdi araututa dago, eta garai latzetako kinka larria uxatu du oraingoz. Batzeko eta arautzeko bidean ez dira sartu ez euskalkiak, ezta azpieuskalkiak ere. Ahaztuta utzi genituen, eta hein handi batean baztertuta ere bai. Bada haiek berreskuratzen hasteko garaia.

Bizirik dirauten euskalki nagusiak bizkaiera, gipuzkera, goi-nafarrera, lapurtera, behe-nafarrera eta zuberera dira. Horien barruan daude herrian herriko azpieuskalkiak.

Gu gehiena kezkatzen gaituen azpieuskalkia Azpeitiko da, eta, ahoz asko erabiltzen den arren, orain idatziz ganoraz eman behar dugu. Uztarrian, hasieran, azkeneko orrialdeko elkarritzeta bakarrik idazten zen Azpeitiko hizkeran. Araurik ez zegoenez, azpieuskalkian idazteko ziurtasun eza izango zen arrazoi nagusia.

*Atrebentzi haundigiye ote da arau zerrenda koxkor bat ematen hastie?*



Garai bateko Erdi kalea. / H. GUIBERT ETA SEMEA

“Orduan ez zegoen industrailderik eta ofiziozko dendak biltzen ziren alde zaharreen”

**Inazio Martinez**



dei berrikoak, Altamira harategia, Lejias La Azpeitiana, Jose Uriarte burni almazena, Txokoloren eta Sarralleren sutagia...”

Garai hartan autoak oso gutxi ziren herrian, bat edo beste, eta trenez ekarri eta karroekin banatzen zituzten herriko banatzaileek. “Herriko banatzaileek karroarekin banatzen zituzten denda eta lantegi txikietara. Karroak astoak bultzatuta ibiltzen ziren herriko banatzaileak Cabrera, Eusebio Tobera eta Alabier ziren. Alabierrenekoak karroa zaldiarekin ibiltzen zuten. Baina baziren karro hutsez banatzen zutenak ere, Otxaka eta Manolito *Rekadista*”.

Azokak ere garrantzia handia zuten Inaziok kontatzen duenez; egunero jaisten ziren baserriarrak euren produktuekin, baita arrantzaleak ere “antxua, antxua, preskua” oihukatuz. Herriz herri ibiltzen ziren saltzaileak ere asko etortzen ziren, baita “txarlatanak” ere.

**osasune** Julian Bereziartua (medikua)



## ETXABEREK SORTZEN DITUZTEN ZAURIAK

**G**izakion hozkadak, beste animalienak baino arazo gehiago sortzen dituela esaten dute; ihes-a, hepatitis-a edo tuberkulosia kutsatzen dutela ere frogatu dute. Pertsonengan animaliek sortzen dituzten zaurien %90, zakurrenak izaten dira eta oso erraz gaiztoztzen edo infektatzen dira. Ia beti, zaurituak ez du medikuarengana joan nahi izaten, sarritan bere errua izan delako, animalari bere jana kentzeagatik edo beste zerbañt egiteagatik. Behar-beharrezkoa da zauria, azalekoa izan edo sakona, lehenbailehen urez eta xaboiaz ondo garbitzea. Baina beti, ondorio arriskuak saihesteko, sendagile edo mediku baten arduraz eman behar zaio tratamendua. Gai honetan, katua da beste protagonista bat. Duela gutxi arte, emakumeak gehiago jasaten zituen bere hozkadak eta atzamarkak gizo-

nezkoak baino, etxean gehiago egoten zelako, noski. Tetano eta arrabia gaitzak sortzen dituela ere esan izan da. Lehenago gertatutakoak ezin dut ezer esan, baina gutxienez esan dezaket nik ez dudala kasu bakar bat ere ezagutu.

Ezin ditugu ahaztu, beste zenbait animalik baserrietan edo nekazaritza lanetan eragindako traumatismoak edo kolpeak: behiek, zaldiek, astoek eta abarrek eragindako adarkadak, hozkadak edo oinak zapaltzeak eta abar... Askotan, nik ikusi dudanez, garrantzikoak izan ohi dira.

● **KATUA.** Katuek egindako zauriek tetano eta arrabia sortzen dituela esan da; nik ez dut kasurik ezagutu

**internet**

## EUSKARAZKO LIBURUAK INTERNETEZ EROS DAITEZKE

Euskal literaturaren merkatuak interneten ere badu bere lekua. Argitaletxe, liburuen banatzaile eta liburuen argitaratzaile batzuen webguneetan euskarazko liburuak erosteko aukera dago, katalogoak kontsultatzearekin batera. Susa argitaletxearen webgunean gainera liburuak %5 merkeago erosteko aukera dago eta, gainera, liburuxka txikiz osatutako bildumako liburu bat jasotzen da opari. Gaur egun, erosteko aukerarik ez badago ere beste zenbait argitaletxe webguneak berritzeko asmotan dira eta aurrerantzean batzuk liburuak webgunean erosteko aukera emateko asmoa ere badute.

Hauek dira, hain zuzen, webgunean liburuak erosteko posibilitatea ematen duten guñe batzuk:

- [www.susa-literatura.com](http://www.susa-literatura.com)
- [www.elkarlanean.com](http://www.elkarlanean.com)
- [www.txalaparta.com](http://www.txalaparta.com)
- [www.megadenda.com](http://www.megadenda.com)
- [www.bitarte.net](http://www.bitarte.net)
- [www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

**gertuko pasadizue**

## ELEGANTE EGUNEKO PURU PIZTEA

● **RAMON ETXEBERRIA:** "Orain [Inauterietan elegante egunean] galduta dagoen puru piztea aipatu nahiko nuke. Zezena irten aurretik arratsaldeko laurak aldera puru piztea egiten zen udaletxe aurrean. Lehiaketa moduan antolatua zegoen, puru ederrera edo handiena hobeto erretzen zuenari saritxo bat ematen zitzaion. Han agertzen zen gazte mordoa udaletxe aurrera puru izugarriekin; batzuk puru handi haiek ezin erreta ibiltzen ziren".

'Azpeitiko Jaiak' liburutik hartua. Txakel Editoriala. 2000. urtea.



GIDA BAIMENAK: A1 - A - B - BTP - C1 - C - D - B+E - C+E - D+E



AUTOESKOLA

# UROLA

Foruen Ibilbidea, 4 - 1 ♦ Tel. 943 81 26 66

JONS - MARKAR



estetikako  
azken  
teknikak

Enparan, 15-1  
Tel. 813898



**JATETXEA**

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

“ Kultura, urte guztian landu beharreko arloa da eta ez une zehatz batzuetan bakarrik”

Alde Zaharreko Zaharra Berri Elkarte

“ Azpeitian, euskal hiztunak ugari eta euskal kulturadunak urri”

Hau da! Kultur Elkarte

“ Antzerkigintza loratuko bada borondate ona baino zerbait gehiago beharko da”

Lakrikun Antzerki Taldea

“ Azpeitian ere eman berea euskarari, ofizialtasuna”

Azpeitiko AEK, Mikelats Euskaltegia



# TALDEAK, KULTURA ETA HERRIA LOTUZ

Otsailean eta martxoan I. Kulturaldia antolatuko dute Uztarriako taldeek, eta aurrera begira gogoeta bultzatuko dute



“Kultur dinamika altxatzea ez ote da guztion lana? Udala, taldeak eta herritarrak?”

**Azpeitiko Euskal Herrian Euskaraz**

“Herritik sortutako kultur dinamikak egingo dio aurre estatuen eraso eta homogeneizazioari”

**Orkatz Kultur Elkartea**

“Kontzertuen hutsune hau ikusita, bi zutabe daude lantzeko: dinamika eta azpiegitura”

**Zubi Zaharreko musika taldeak**

“Lokal duinak behar ditugu geure jarduerak modu txukun batean aurrera eramateko”

**Kitarrista taldea**

**Idoia Mendizabal**

**U**ztarria Kultur Koordinadorako taldeak herriko kultur dinamika pizteko lanean hasi dira elkarrekin —AEK-k, Argazki Elkartek, Azpeitian Gazteok Zer?-ek, EHEk, Erriarrantz Bertso Eskolak, Hau da! Kultur Elkartek, Kitarrista Taldeak, Lakrikun Antzerki Taldeak, Orkatz Kultur Elkartek, Urrestillako eta Zubi Zaharreko rock taldeek, eta Zaharra Berri Elkarteko kultura arloak osatzen dute koordinatzaile gisa—.


Koordinadoraren arabera, “Uztarriako taldeok gogoeta egin dugu azken hilabeteotan, eta kezkatuta gaude, herriko kultur dinamika eta partehartzea nahikoa ahul daudelako”. Horregatik, hainbat arlotan egingo dute lan talde guztiek batera.

Hasteko, otsailaren 23tik martxoaren 17ra Azpeitiko I. Kulturaldia antolatu du Uztarriak. Hilabete horretan musika kontzertuak, antzerkia, poesia, bertsolaritza, herriko egoerari lotutako hitzaldiak, txalaparta emanaldia, artisautza azoka, erakusketa bat eta abar izango dira herrian. Kulturaldiko ekitaldi asko kalean eta tabernetan egingo dira. “Izan ere, herriko egoera, lokal aldetik, nahiko eskasa da”, gogorarazi dute taldeek. Bide horretatik, berriro kultur etxearen aldeko proposamena egin dio Uztarriak Udalari, eta harekin elkarlana bilatzeko prest agertu da koordinadora.

Taldeei begira ikastaro batzuk ere antolatu ditu Uztarriak. “Taldeen beraien esku dago herriko dinamika piztea, eta horretarako formakuntza oso garrantzitsua da”. Diseinu grafikoari eta talde dinamizazioari buruzko ikasitakoak ahal izango dituzte aurrera eramateko.

**HAUSNARKETA LANA.** “Herriko egoera ez da egokiena, eta horretaz hausnartu egin behar dugu denok ere”, diote, horretaz gain, taldeek. Horregatik, Kulturaldia eta gero kulturaren eta partehartzearen inguruko hausnarketa lana bultzatuko dute herrian. “Taldeen funtzioaren inguruan, partehartzearen inguruan, herrian sortzen eta kontsumitzen den kulturaren inguruan... gogoeta bultzatuko dugu”. Horretarako taldeei begira inkestak eta eztabaidak egingo dituzte, eta jardunaldiak ere antolatu dituzte.

# Uztarriaren proposamena (berriro) kultur etxeari buruz



Uztarria Kultur Koordinadorako taldeak 1997ko urrian bildu ziren lehen aldiz (artean sortzeke zen Uztarria), herriko diagnostikoa elkarrekin egin eta konponbideak planteatzeko. Herrian lokal aldetik egoera eskasa zegoen orduan, eta gaur ere halaxe dago. Uztarriako taldeon iritziz beharrezkoa da herrian kultur etxe bat, eta kultur etxe horri arina eta zabala izatea funtzionamendu eta izaera aldetik. Hauxe da 1999ko martxoan Uztarriak eginiko proposamenaren laburpena:

● **BASAZABALEN.** Kultur etxea Enparan

kalean dagoen Basazabal jauregian kokatu behar da, 1984-1987ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Kultur Ekipamenduen Programa*-n aurreikusita dagoen bezala.

● **JABETZA.** Azpeitiko Udalarena izango da Basazabal Kultur Etxea.

● **GASTUAK.** Obrako eta beste gastu guztiak erakunde publikoen kontu joango dira. Azpeitiko Udalak ere dirua inbertitu beharko luke berriro —lehen ere milioi pezetak batzuk gastatu ditu etxe horretan—.

● **TALDEEN LANA.** Taldeak ezinbestekoak dira Azpeitirako, eta Udalak herriko taldeen lana errekonozitu egin behar du. Taldeok ez dira talde pribatu, irabazpide

## I. KULTURALDIAREN EGITARUA



Ibiltarixanak-en ikuskizuna martxoaren 8an izango da.

- **OTSAILAK 23 (larunbata).** ●17:00: Rock kontzertua: Tiobibo, Ezinean. Korrale tabernan.
- **OTSAILAK 24 (igandea).** ●19:00: Antzerkia: Lakrikun antzerki taldea, udal etxe azpian.
- **MARTXOAK 2 (larunbata).** ●19:30: Musika: Kitarrista Taldea, udal etxe azpian.
- **MARTXOAK 8 (ostirala).** ●21:00: Poesia eta musi-

ka: Ibiltarixanak, Aitonena aretoan.

- **MARTXOAK 9 (larunbata).** ●17:30: Txalaparta zalaparta, plazan.
- 19:30: *Diapoesia: ikusiteko poemak eta entzuteko irudiak*, herriko hiru gazteren eskutik, Orkatz tabernan.
- **MARTXOAK 10 (igandea).** ●11:00: Artisautza azoka, plazan.

- **MARTXOAK 13 (asteazk.).** ●20:00: Hitzaldia: abokatu euskaldunen ordezkari bat, Aitonenan.
- **MARTXOAK 15 (ostirala).** ●23:00: Rock kontzertua: Os Gallardos, Korralen.
- **MARTXOAK 16 (larunb.).** ●21:00: Txotxa, azoka plazan, AEK-k antolatuta. Losintxa lehiaketaren sari banaketa egingo da.
- 23:00: Rock kontzertua, plazan.
- **ZEHAZTUGABEA.** ●20:00: Hitzaldia: Tomas Urzainki, Enparanen. Gaia: Nafarroa.

Oharra: epe horretan AEK-ren losintxa lehiaketa zabalik izango da.



“ 25 urte bete ditugu, eta gerora begira ere laguntasunerantz ariko gara argazkiaren bidez”

**Azpeitiko Argazki Elkarte**

“ Gazte lokala, kultur eragile garrantzitsua izan daiteke herriarentzat eta herritar gazteentzat”

**Azpeitian Gazteok Zer?!**

“ Lehen ez zegoen taldeen elkarlanik, gaur egun badago, eta hori onuragarria da”

**Erniarraitz Bertsozale Elkarte**

“ Behar-beharrezkoa da dinamika bat martxan jartzea, hildakoa piztu nahi bada”

**Urrestillako musika taldeak**



ekonomikorik gabe borondatez herriarentzat lana egiten duten taldeak baizik.

● **ESTATUTUAK.** Herriko talde guztiek ere parte hartuko dute kultur etxeko estatutuak zehazterakoan. Eztabaidako partaide guztien arteko kontsentsua lortu behar da.

● **IZAERA ZABALA.** Kultur etxeak oso izaera zabala edukiko du. Herritar guztiek izango dute bertan biltzeko, zerbait antolatzeko eta parte hartzeko eskubidea.

● **FUNTZIONAMENDUA.** Kultur etxeko eguneroko funtzionamendua arina izango da (ordutegi aldetik, burokrazia aldetik...).

● **AZPIEGITURA.** Etxe handia da Basazabal (probetxuko 1.026 metro karratu ditu, lau solairutan banatuta) eta, beraz, gero aberatsa izango da azpiegitura aldetik. Taldeei galdetuko zaie zer-nolako are-

toak behar diren kultur etxean (erakusketaretoa, hitzaldi-eztabaida aretoa, ikusentzuneke aretoa, informazio-komunikazio aretoa, egonaldi aretoa, tailerrak—argazki laboratoriora, eskulangintza, antzerkia—...), eta zer-nolako materiala behar den (ordenagailuak...).

● **ANTOLAKETA TALDEA.** Kultur etxea irekitakoan Antolaketa Taldea sortuko da, eta bera arduratuko da kudeaketaz. Herriko taldeetako ordezkariak eta Udaleko ordezkariak egongo dira bertan. Talde horrek erabakiko du nola eta noiz egingo diren barruko eta kanpoko produkzioari begirako plangintzak eta ekitaldiak.

● **DIRU LAGUNTZA.** Udalak, Kultura Batzordearen bitartez, urtean horrenbeste diru laguntza emango dio kultur etxeko Antolaketa Taldeari. Udalak urtean hainbat aldiz kultur etxeko diru kontuak nola doazen ikusi ahal izango du.

**ikasberri**  
A Z P E I T I K O I K A S T O L A

“Pentsatzea maila goreneko hezkuntzaren ondorioa da”



# Azpeitiko merkatu txikiye

## 1. ETXEBIZITZAK

- 1.1. Saldu
- 1.2. Erosi
- 1.3. Errentan eman
- 1.4. Errentan hartu
- 1.5. Etxeak osatu
- 1.6. Bestelakoak

## 2. LOKALAK

- 2.1. Saldu

- 2.2. Erosi
- 2.3. Errentan eman
- 2.4. Errentan hartu
- 2.5. Bestelakoak

## 3. GARAJEAK

- 3.1. Saldu
- 3.2. Erosi
- 3.3. Errentan eman
- 3.4. Errentan hartu

## 4. LANA

- 4.1. Eskaintza
- 4.2. Eskaera
- 4.3. Bestelakoak

## 5. MOTORRA

- 5.1. Saldu
- 5.2. Erosi
- 5.3. Errentan
- 5.4. Bestelakoak

## 6. BIDIAK

- 6.1. Europa
- 6.2. Mundua

## 7. DENETARIK

- 7.1. Saldu
- 7.2. Erosi
- 7.3. Errentan eman
- 7.4. Errentan hartu
- 7.5. Bestelakoak

deitu

15 03 58

e-maila:

uztarria@topagunea.com

• Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, lerroko euro bat ordaindu beharko dute.

• Uztarriak ez du iragarkien on-dorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

• Aldaketak adierazi Uztarriari.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 1.1. SALDU

- **Pablo VI.** 15 zenbakia 5. pisua. 100 metro karratu. Telefonoa: 943 - 81 41 00.
- **Santiago kalea.** 22 zenbakia. 2. pisua. Telefonoa: 639 - 13 86 46.
- **Jose de Artetxe.** 12 zenbakia. Lehen pisua. Telefonoa: 943 - 15 07 51.

## 2. LOKALAK

### 2.1. SALDU

- **Plaza Nagusia.** Lehen pisua, arkupetan. Telefonoa: 943 - 46 29 31.
- **Julian Elorza auzoa.** Telefonoa: 943 - 15 05 10.
- **Erdi kalea.** Telefonoa: 943 - 81 49 87.

### 2.3. ERRENTAN EMAN

- **Olazko Amaren Plaza.** Telefonoa: 943 - 15 08 72 edo 666 52 59 45.
- **Iñaki Azpiazu kalea.** Telefonoa: 943 - 81 18 00 edo 943 - 81 02 94.
- **Enparantza Nagusian.**

Lehen pisua, arkupetan. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

- **Pablo VI.** 1. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 14 63.
- **Pablo VI.** 5. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 03 25.

## 4. LANA

### 4.1. ESKAINTZA

- **Sukaldaria.** Taberna baterako. Telefonoa: 636 - 73 76 14 edo 658 - 24 39 56.

## 5. MOTORRA

### 5.1. SALDU

- **Autoa.** Ford Focus 2.0 16v. SS-BD matrikuladuna, 50.000 kilo-metro. Gehigarri denak (aire egokitu izan ezik). Kolorea: berde metalizatua. 10.819 euro (1.800.000 pezeta). Telefonoa: 656751323. Iñaki.
- **Autoa.** 7X2.Oi 16V. 4.507 euro (750.000 pezeta). Telefonoa: 652 - 76 55 79.
- **Autoa.** Ford Sierra Cosworth. 204 zaldi. Gehigarriak. Egoera onean. Telefonoa: 656 - 77 08 97. Gorka.
- **Motoa.** Derbi GPR-80. Bi eska-

pe Tavi eta beste GPR-80 bat ia osoa piezatarako. Telefonoa: 656 - 77 08 97. Gorka.

- **Motoa.** Honda NSR-80. Gehigarri guztiak. NH-AD. 600 euro (100.000 pezeta). Telefonoa: 943 - 81 61 74 edo 647 - 21 21 55. Ibon.
- **Autoa.** Ford Maveryk 4x4. 2.7 TD. Telefonoa: 659 - 03 63 33. Jon.
- **Autoa.** Peugeot 306 XSI. SS-AT. Telefonoa: 687 - 21 71 16. Xabier.
- **Autoa.** Ford Orion 1.6. 601 euro (100.000 pezeta). Telefonoa: 679 - 81 66 66 edo 943 - 73 18 48.
- **Autoa.** Mercedes familiarra. Grisa. 300 TD. Telefonoa: 943 - 81 35 00.
- **Autoa.** BMW M-3, Full Equip. 12 hilabeteko bermearekin. Zure autoa finantziatuko dizugu. Orbegozo Autoak. Telefonoa: 943 - 15 18 57 edo 629 - 48 09 83.
- **Autoa.** BMW 530-D. Avant. Full Equip. 12 hilabeteko bermearekin. Autoaren finantziaketa. Orbegozo Autoak. Telefonoa: 943 - 15 18 57 edo 629 - 48 09 83.
- **Autoa.** BMW 320-D. Full Equip. 12 hilabeteko bermearekin. Auto-

• **Bustinzuriko Errebala.** 40 metro karratu. Hirugarren pisua da. Bi gela, egongela, sukaldea eta komunna. Leihoak Olazko Amaren plazara. Telefonoa: 943 - 20 33 12. Leire.

• **Saltzaileak.** Azkoitian zabalduko den zapata denda kate baterako saltzaileak behar dira; 20 eta 29 urte bitartekoak. Salmentan esperientzia baloratuko da. C.V.-a, argazkia eta telefono zenbakia bidali honako helbidera: AZK-20-01 Erref. 19 Postakutxa. 20100 Errenteria.

aren finantziaketa. Orbegozo Autoak. Telefonoa: 943 - 15 18 57 edo 629 - 48 09 83.

• **Autoa.** Audi A-3 TDI. 110 zaldi, pertsonalizatua. 12 hilabeteko bermearekin. Autoaren finantziaketa. Orbegozo Autoak. Telefonoa: 943 - 15 18 57 edo 629 - 48 09 83.

• **Autoa.** Audi A-6 2.5 TDI. Avant. Tritonic. FullEquip. 12 hilabeteko bermearekin. Autoaren finantziaketa. Orbegozo Autoak. Telefonoa: 943 - 15 18 57 edo 629 - 48 09 83.

• **Autoa.** Subaru Impreza GT Turbo. 12 hilabeteko bermearekin. Autoaren finantziaketa. Orbegozo Autoak. 15 18 57 edo - 629 48 09 83.

## 7. DENETARIK

### 7.1. SALDU

- **Ardiak.** Hogei ardi ume egiteko. Telefonoa: 689 - 92 93 54 edo 943 - 15 13 28.
- **Egurra.** Botatako egurra erosten dugu. Telefonoa: 943 - 81 34 74 edo 943 - 81 45 70.
- **Pianoa.** Modu onean. Telefonoa: 652 76 15 52. Iñaki.

**Amenabar**  
D E N D A

gortinak, ohazalak,  
edreoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

bitxidenda



Plaza txiki, 7 - Telf. 943 81 23 67

LOIOLA KLINIKA



**Manuel Salaberria**  
BEGIKO SENDAGILEA

BEGIKO MIKROKIRURGIA:

- KATARATA. MIOPIA. HIPERMETROPIA.
- BEIRAKARA-ERRETINAKO GAISOTASUNAK
- Erretina askatze.
- Makulako gaisotasunak.
- Erretinopatia diabetiko konplikatua.




**Esther Usandizaga**  
FAMILIAKO MEDIKUNTZA  
ETA MEDIKU OSTEOPATA

- Azterketak (Analiysiak...)
- Arreta jarraia.
- Etxera ere joaten gara.

OSTEOPATIA

- Bizkarrezurraren errehabilitazioa ( gerrrialdekoa, bizkarraldekoa, zerbikala).
- Gihar eta artikulazioetako arazoak.

Loiola auzoa, 25-C behea ♦ Tfnoa: 943 15 17 52 ♦ 20730 Azpeitia-Loiola





argazkilaraye: Juan Joxe Agirre

# 23 urte Inauterietako irudiak jasotzen

● **JUAN JOXE AGIRRE.** Azpeitia (1945). Argazki Elkartearen sortzaileetako bat da. Batik bat paisaia eta naturari buruzko argazkiak landu ditu (*Arte Fotográfico, Natura eta Pyrenaica-n*). *Azpeitiko Baserriak* liburuaren egilea da.

● **INAUTERIAK.** Migelito Sarrallerekin batera, aurten 23. urtea beteko du Inauteri giroko eta sokamuturreko argazkiak ateratzen. Juan Antxieta Inauterietako Argazki Lehiaketaren hutsik egin gabe urtero parte hartu izan du.





#### 1. HERRIA.

"Orain urte batzuk ateratako argazki hauetan Azpeitian azkeneko urteetan izan diren aldaketak ikusteko ere balio dute. Goiko-errotan inguruko etxeak gaur egun botata dira eta berriak eginda daude".

#### 2. ELEGANTE.

Elegante eguneko argazkia; musika jotzeko ere dotore asko jantzita.

#### 3. MUSIKA.

"Musika izan ohi da Inauretako protagonistetako bat".

#### 4. BALKOITIK.

"Udaletxeko balkoitik ateratako argazkietako bat da, 1984an".

#### 5. A ZER SUSTOA!

"Argazki hori 1979an atera nuen, eta zezena azaltzen ez den arren, saritua izan zen".

#### 6. ZEZENZALEA.

"Azpeitian ez dago zezenzaletasuna galtzeko beldu-"





**7. ZALETASUNA.**

"Argazki honetan ikusten da garbi Azpeitian zezenerako dagoen zaletasuna; a zer jende oldea!".

**8. UMOREA.**

"Eguraldi txarra edo ona egin, jendea umore oneko".

**9. JOLASEAN.**

"Zezena nahikoa ez dela, baloiak ere bai, astearte goizeko kontuak".



# URTE BERRIKO SUSTOAK

Zenbat opari, zenbat sorpresa... asko izan dira gutuk adina jaso ez dutenak! Denetan handiena, urte berria, urte berri bat hasteko aukera izatea ez baita gutxi! Azken finean, data berri bat, egutegi berri mordo bat eta ibili-ibili eginda ere, beste egun bat baino ez.

Halaxe igarotzen da bizitza: egunez egun besterik gabe. Halaxe egin dugu urte batetik besterako jauzia. Jauzi horretan badaukat nik ohitura, urtarrilaren 1eko ordu txikietan, igarotako urte sasoiaren idatzizko errebaso bat egiteko eta aurtengoan ez dut egin. Ohean sartu nintzen eta nahikoa lo eginda besarkatu nuen urtarrilaren 1eko goiza. Ez nioke ezer kenduko joandako urteari, ia-ia ezta jarri ere. Beraz, errebasorik gabe ere lasai lo egiteko moduan nintzela ulertu nuen.

Urte berriak zer pentsa gehiago eman dit egia esan. Aurreneko sustoa, ia gutako gehienoi bezala, euroak eman zidan; oraindik ez zait sustorik pasa.

Euro eta xentimoekin ordaintzen dudak bakoitzean, sekulako dirutza ordaintzen dudak irudipena, irudipena bakarrik ez dela pentsatzen hasia nago jada. Batetik, urte hasierako prezioen igoera eta bestetik, zentimoak biribiltzearena...

Dena sekula baino garestiago dagoela guztion ahotan dagoen arren, ez da euroaren inguruan etengabe aipatzen den kontu bakarra. Optiketan jende gehiago ikusten hasi bazarete ez harritu, jendea betaurrekoak faltan botatzen hasi baita, ikusi ere, uste baino gutxiago ikusten duela bat baino gehiago konturatu delako.

Irratian egunotan esaten ari dira asteroide bat lur planetatik nahiko gertu igaro dela. Ez gaitu ukitu ere egin ordea, eta 2028a arte ez omen da besterik hain gertu igaroko. Pasa da eta kitto. Euroa ez, euroak jo gaitu eta bertan geratu da eta ez da pasako, hementxe geratu da talka galanta eman eta gero. Baikorrak izan gaitzen: asteroidearen talka baino eraman errazagoa izango ote da txanpon berriak eman diguna! Nik, dena dela, erregeek oparitu zidaten eurokalkulagailua erabiltzen jarraituko dut, ea modu horretan txanpon berriari itxura apur bat hartzen hasten naizen.

Hori bestea! Hori urte berriak emandako bigarren sustoa. Bilbora iristen diren erregeak ezagutu asmoz, bertara txango bat egin genuen alabak eta biok. Sekulako festa Bilbon!

Eta erregeak? Haiek bai dotreak! Alabak esan zidan errege beltza margotua bazegoen aise nabarituko zuela, muxu ematean zikindu egingo zuelako

**OPARIA.**  
Erregalo  
ttikia,  
esker ttikia

baina benetako Baltasar zela ikusi genuen udal-  
txeko areto arabiarrean hurrei muxuka ikusi  
genuenean, ez zegoen margotua.

Txanda iritsi zitzaionean, alabatxoak Meltxor  
aukeratu zuen eta han hurbildu zitzaion gizontxoar-  
i tente-tente eta irribartsu. "¿Has sido buena? ¿Has  
comido todo lo que te han dado tus padres?" Eta  
haurrak: "Si, sí".

Eta ama —ni, alegia—, baba dariola, argazki  
kamera bat eskuarteaz ez nuelako penetan. Eta  
denok konforme! Bilboko hirian erregeak haurrari  
euskaraz hitz bat ere egin ez ziola ikusita. Argazki  
hura atera izan banu... Hitzik gabeko Meltxor hark  
zoriontsuago egingo ninduen. Urrunetik datozela  
eta gaztelera nonbait urruneko hizkuntza ofiziala!  
Magoak izango dira, baina Euskal Herrian euska-  
raz hitz egiten dela ezin igarri...

Bai Meltxor, alabak emandako guztia jan du,  
baina eskukada goxoki eman zenionean, "gracias"  
esatea ahaztu zitzaion.



As.	At.	Az.	Os.	Ot.	La.	Ig.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28			

## OTSAILAK 1 (ostirala)

### • ZAPO TXOKO.

Bideo emanaldia: *Jovenes Prodigiosos*. Zapo Txoko Gaztegunean.

## OTSAILAK 5 (asteartea)

### • SENDABELARRAK.

Udaleko Gizartekintza Sailak antolatuta Sendabelarren ikastaroa. Ikastaroa Zorion Insaustik emango du. Aitonena 1-eko sukaldean.

### • ZAPO TXOKO.

Sukaldaritza lantegia. Sei euro. 19:00etan. Zapo Txoko Gaztegunean.

## OTSAILAK 6 (asteazkena)

### • SENDABELARRAK.

Udaleko Gizartekintza Sailak antolatuta Sendabelarren ikastaroa. Zorion Insaustik emango du. Aitonena 1-eko sukaldean.

# Dantza garaikideko ikastaroa emango du Adeshoras taldeak

• EKITALDIA: Dantza Garaikideko ikastaroa • EGUNA: Otsailaren 16an, larunbata, hasiko da • IKASTAROAREN IRAUPENA: 24 orduko ikastaroa • TOKIA: Zapo Txoko Gaztegunean • ANTOLATZAILEA: Zapo Txoko Gaztegunea

**Nerea Aranburu / Zapo Txoko Gazteguneak** hainbat ekitaldi antolatu ditu hurrengo hila-beteetarako. Ekitaldi horien artean, batzuei garrantzi berezia eman nahi izan die; besteak beste, Dantza Garaikideko tailerrari. Ikastaro honen helburu nagusia, gazteen eskaerei erantzuna ematea da, eta ikastaro hau Adeshoras taldeak emango du. Dantza Garaikidearen ikastaroak, 24 orduko iraupena izango du eta otsailaren 16an emango

zaio hasiera. Bertan 13 urtetik 30 urtera arte bitarteko edozein azpeitiarrek hart dezake parte. Izena emateko epea, otsailaren 8an amaituko da. Ikastaro osoaren prezioa 18 eurokoa izango da (hiru mila pezeta inguru). Informazio gehiagorako Gazte Informazio Bulegora zuzendu beharko da, Zapo Txoko Gaztegunean, Urola kalea 6an; edo, bestela, telefono honetara deitu besterik ez dago, 943 - 15 71 61.

### • ZAPO TXOKO.

Larru lantegia. Bi euro. 18:00etan. Zapo Txoko Gaztegunean.

## OTSAILAK 8 (ostirala)

### • ZAPO TXOKO.

Inauteri jaia egingo da Zapo Txoko Gaztegunean.

### • EUSKAL INAUTERIAK.

Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta Euskal Inauteriak Alde Zaharreko kaleetan.

19:00etatik 21:00etara. Bertan, euskal tradizioak eskaintzen dituen dantzak, pertsonaiak, kalejira eta abar ikusi ahal izango dira.

## OTSAILAK 10 (igandea)

### • GOIZ ERESIA.

Izarraitz Txistulari Taldearen goiz eresia. 09:00etan.

### • SOKAMUTURRA.

Zezena. Plazan. 12:00etan.

### • DANTZA.

Itsasiko artzain-inudeen kalejira kaleetan. 12:30ean.

### • ARGAZKILARITZA.

XXIII. Kutxa Juan Antxieta Argazki Lehiaketa izango da sokamuturraren inguruan.

### • SOKAMUTURRA.

Zezena. 16:30-20:00ak.

## OTSAILAK 11 (astelehena)

### • DESFILEA.

Haur mozorrotuen desfilea. 12:30ean.

**LUBA**  
- AHOLKULARITZA FISKALA,  
- LABORALA, KONTABLEA  
- ASEGURAK  
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Emparan kalea, 30  
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75  
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

**Otamendi**  
*Betsi Dorado*

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

Lore Sortak  
Koroiak  
Lore Apaingarriak

Etxeetarako  
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87  
Loiolo-Bide, 25 - AZPEITIA

**AZKOITIA**

ERLOJU  
KONPONKETAK

Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

**ostadar optika**  
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**ODRIOZOLA ARDOAK**

Julio Urquijo, 18  
Tfnoa.: 850 011  
AZKOITIA

Iñaki Azpiazu, 5  
Tfnoa.: 15 13 16  
AZPEITIA

**PILDAIN**  
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es

**TABERNA**

**LOKOTX**

Telfnoa.: 943 151086  
Enparantza Nagusia

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa**  
zuri esker

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzua


**KAITO TELEBISTA**

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35





● **SOKAMUTURRA.**

Zezena. Herriko kaleetan zehar 16:30etatik 20:00ak arte.

● **MOZORROAK.**

Mozorro lehiaketaren sari banaketa. 01:30ean.

**OTSAILAK 12** (asteartea)

● **SOKAMUTURRA.**

Zezena. 07:00etatik 09:30ak arte.

● **SOKAMUTURRA.**

Zezena. Kaleetan zehar. 16:30etik 20:00ak arte.

**OTSAILAK 17** (igandea)

● **MENDIA.**

Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta Aralarrera egun guztirako irteera. Irteera 08:30ean plazatik.

**OTSAILAK 19** (asteartea)

● **SENDABELARRAK.**

Udaleko Gizartekintza Sailak antolatuta Sendabelarren ikastaroa. Zorion Insaustik emango du. Aitonena 1-eko sukaldean.

**OTSAILAK 21** (osteguna)

● **HITZALDIA.**

Gaia: *Heziketa sexuala nola landu familian?* Hizlaria: Garbiñe Merino pedagogo sexologo. Iturritxiki Ludotekan. 15:15 - 16:45ean.

**OTSAILAK 23** (larunbata)

● **ESKIA.**

Bi egunerako irteera Candanchura Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Iraupen eskia eta alpinoa. Aurretik izena eman behar da Lagun Onak M.B. ren egoitzan.

**OTSAILAK 26** (asteartea)

● **SENDABELARRAK.**

Udaleko Gizartekintza Sailak antolatuta Sendabelarren kurtsoa. Aitonena 1-eko sukaldean.

● **ZAPO TXOKO.**

Sukaldaritza lantegia egingo da. Sei euro balioko du lante-

**Soreasuko filmak**

- **'EL HIJO DE LA NOVIA'.** Otsailaren 2an (larunbata, 22:00etan), 3an (igandea, 17:15ean, 19:30ean eta 22:00etan) eta 4an (astelehena, 20:00etan). Soreasu.

**Zine klubeko filmak**

- **'LA PIANISTA'.** Otsailaren 8an (ostirala, 21:00etan). Soreasu.
- **'LA OTRA CARA DEL CRIMEN'.** Otsailaren 22an. (ostirala, 21:00). Soreasu.

gian parte hartzeak. 19:00etan. Zapo Txoko Gaztegunean.

**OTSAILAK 27** (asteazkena)

● **SENDABELARRAK.**

Sendabelarren ikastaroa. Zorion Insaustik emango du. Aitonena 1-eko sukaldean.

**MARTXOAK 2** (larunbata)

● **ZUHAITZ EGUNA.**

Zuhaitzaren eguna. Ingurugiro Etxearen eta ibaiaren inguruan egingo da zuhaitz landaketa. 11:00etan.

*iratxo*

*iratxo*

*iratxo*

*iratxo*



©nde pasau karnabolak!

Jostailuak - Paperdenda

Tel. 15 05 30

Sanjuandei auzuen

*iratxo*



JOLASTEN IKUSI

JOLASTEN IKASI

IKASI JOLASTEN

JOLASTEN...

GOZATZEN

*iratxo*

*iratxo*

*iratxo*

*iratxo*

## Urrategi Alberdi


Borondatezko lankidie Dominikar Errepublikan

### Pueblo Viejoi begiratue



- Dominikar Errepublikan dao, hegoaldien. Haititik gertu.
- Azua probintziyen.
- Bost mille lagun bizi die Pueblo Viejo herriyen.
- Nekazaritzan ta abeltzaintzan egiten debe geyenek lan.
- Gaztelerie da hizkuntza nagusiye.
- Erlijijue: katolikue (%95a) ta bestiek (%5a).

# “Hemengo kontuek horkuek akordatzen zizkiñabe”



**U**rtete da Urrategi Alberdi Dominikar Errepublika jun zana. Bertako parroki sortu berriyei bultzada bat ematekotan jun zan. E-mailez egon gea harekin elkarriketa hontako.

#### • Hor zerek harritu hau geyen?

Oindik'e egunero harritzen nauena zeruen edertasune den, eguzkiye sartzeakuen ta erteteakuen batipet. Lehenen egunien aireportutik atea ta bidien zeruei beire jun nitunan.

#### • Ze lan eiten den hor?

Gure eitekue ez den ezer ezartzie, baidik bertakuei animue eo bultzadatxue ematie herriye altxa dezaten, esna daitezen. Hortarako, heziketie ezinbestekue dala uste diñeu guk eta haiek. Hemen gaudenetik alfabetatze proiektue bultzau diñeu. La Terreran ahuntzek hazteko elkartie're sortu den ta Pueblo Viejon'e holako bat sortzekotan ditun. Oin aztertzen ai gaitun nola lortu taillerak, forumek eta abar antolatzeke gurnie osatzie. Prozesu makala den, baño merezi dulakoan natxion.

#### • Ta lanetik kanpo denbora librien ze eiten den?

Egun bat hartzen saiatzen gaitun geure kontuetako, baño ez den erreza bereiztie denbora librie ta lana. Bueno, lau egun hartu nizkiñen Duarte mendire juteko, ta Yoba hemengo lagun bat ta biyok elkarte batekuekin jun gitunan.

#### • Azpeitiyekin akordatzen al haiz?

Asko, baita jendiekin'e. Hemengo kontuek horkuek akordarazten nizkiñabe. Saiatzen naun karta bidez harremana mantentzen. Horko berri eskutitz eta aldizkayen bidez jasotzen diñet, Uztarria, Maxizatzen eta Danbolin jasotzen dizkiñet ta. Elkarri-n aldizkaye're jasotzen diñet, eta aipau oso interesgarriye iruitzen zaitela bultzatzen ai dan Bake Konferentziye.

#### • Orduen egunero hemengue goguen?

Gelie mendiko argazkiz beteta zaukenat, ahizpek bialdute geyenak. Lagun batek Xoxoteko izoztegiyen irudiye bialdu zien, ta beste batek baso ear batena.

Nerea Uranga

**HANGO JENDIE.** «Azala iluno zaukenabe ta ez ditun harro sentitzen horrekin; identidade arazue gogorra den. Baño merengie ta batxata erritmuek ondo dantzatzen dizkiñabe»

# ZATOZ GURE ERAKUSTOKIA IKUSTERA

*Altzari ekologikoa:  
ingurugiroa errespetatuz,  
gure bezeroak maite ditugu*




GAZTAINONDO, GEREZIZKO ETA HARITZEZKO ALTZARIAK



fabrikako prezioetan zure etxera  
finantzaketa 36 hilabetetara





Santi Lazkano Kirolak

Beherapenak

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50

# sare@.informatika

Informatika, zuzandik gero eta hurbilago

€uroari egokitzeko egitasmoa



Enpresa eta autonomoentza  
Telefonoa dohan



+ + @ = 0 ptas mes

Azpeitia Azkoitia Zarautz  
Pablo VI 19 behea Julio Urkixo 10 behea Kale nagusia 1 behea

Telf: 943157 321

posta@sarea-informatika.com

Banatzaile Ofiziala  
**Euskaltel**

Gabonetan eta gabonak  
ondoren ZER BITZUA.

Prezio ezinobeak ORDENAGAILUETAN

